

# Zmz

HAUR ETA NERABEEN AHOTSA



**Nola ebaluatzen  
duten Gipuzkoako  
haur eta nerabeek  
beren ongizatea**

2023




Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Kultura, Lankidetz,  
Gazteria eta Kirol  
Departamentua



ETORKIZUNA  
ORAIN



Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapenerako Sarea  
Red de Promoción Infantil y Juvenil de Gipuzkoa



**Egileak:**

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol Departamentua.

EDE Fundazioa

**Argitalpen-data:**

2023ko martxo

**Eskerrak:**

Eskerrak eman nahi dizkiegu Ferrán Casas Gizarte Psikologiako katedradun eta Gironako Unibertsitateko irakasle emerituari, Mari Corominas Bartzelonako Haur eta Nerabeen Institutuko ikertzaileari eta Asier Huegun Hezkuntza UPV/EHUko Filosofia eta Antropologia Fakultateko irakasleari ikerketa honetan emandako laguntzagatik.

Era berean, Gipuzkoako ikastetxeetako haur eta nerabeen parte-hartzea eskertu nahi dugu, eta baita irakasle guztiena ere, beren inplikazioarekin proiektu hau garatzea ahalbidetu dutelako.

# Aurkibidea

<b>0. Sarrera</b> .....	<b>1</b>
<b>1. Metodologia</b> .....	<b>3</b>
1.1. Zer da haurren eta nerabeen ongizate subjektiboa?.....	5
1.2. Zer eredutan oinarritu da azterketa hau? .....	6
1.3. Nolakoa da galdetegia? Zer dimentsio edo esparru aztertzen ditu?.....	6
1.4. Nola eta noiz galdetu da? .....	10
1.5. Nork bete du inkesta? .....	11
<b>2. Emaitza nagusiak</b> .....	<b>13</b>
2.1. Zer neurritan daude pozik, oro har, beren bizitzarekin? .....	15
2.2. Nola hautematen dute beren ongizatea? .....	20
<b>3. Emaitzak Gipuzkoako haur eta nerabeen bizitzako ESPARRUETAN</b> .....	<b>25</b>
3.1. Zer esparrutan dute gogobetetze maila handiena? Eta txikiena? .....	27
3.2. Zer gogobetetze maila dute beren FAMILIA-BIZITZAREKIN? .....	31
3.3. Zer gogobetetze maila dute beren ONGIZATE MATERIALAREKIN?.....	38
3.4. Zer gogobetetze maila dute beren OSASUNAREKIN? .....	50
3.5. Zer gogobetetze maila dute beren AUTONOMIAREKIN? .....	61
3.6. Zer gogobetetze maila dute beren ESKOLA-BIZITZAREKIN? .....	69
3.7. Zer gogobetetze maila dute beren LAGUNEKIN? .....	83
3.8. Zer gogobetetze maila dute beren AISIAREKIN? .....	93
3.9. Zer gogobetetze maila dute beren AUZO/HERRIAREKIN?.....	105
<b>4. Gipuzkoako haur eta nerabeen bizitzako BESTE ALDERDI BATZUK</b> .....	<b>117</b>
4.1. Berdinen arteko indarkeriari buruzko zenbait ohar .....	119
4.2. Sexu-hezkuntzarekin lotutako zenbait ohar .....	123
4.3. Berdintasunarekin lotutako zenbait ohar .....	125
4.4. Lagunekin euskara erabiltzeari buruzko zenbait ohar .....	126

4.5. Haur eta nerabeen eskubideak ezagutzeari buruzko zenbait ohar .....	131
<b>5. Ondorioak</b> .....	<b>133</b>
5.1. Bizitzarekiko gogobetetze maila orokorrean .....	135
5.2. Norberak hautemandako ongizatea .....	135
5.3. Gogobetetze maila handiena eta txikiena sortzen duten esparruak .....	136
5.4. Azterketan ebaluatutako beste alderdi batzuk .....	143
5.5. Ekintzarako orientabide batzuk .....	144
<b>6. Eranskinak</b> .....	<b>146</b>
6.1. Ohar estatistikoak .....	148
6.2. Gipuzkoako eskualdeak eta udalerriak .....	156
6.3. ZMZ galdetegia: Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. maila .....	158
6.4. ZMZ galdetegia: Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. maila .....	168
6.5. ZMZ galdetegia: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1., 2. eta 3. maila .....	180
6.6. Erreferentzia bibliografikoak .....	193

Haurren eta nerabeen ongizatea eta bizi-kalitatea gizarte-ondasun bat dira, eta hainbat faktoreren eragina dute: familia, eskola, edo gizartearena oro har. Beraz, gizarte-estamentu guzti-guztiei dagokigun gaia da, eta denok hartu behar dugu geure gain arlo horretan dugun erantzukizuna.

Administrazio guztiei dagokigu, bakoitzari bere mailan eta jardun-eremuan, beharrezkoak diren bitartekoak jartzea gure lurraldeko haurrek eta nerabeek aurkituko duten gizarteak beren bizi-garapen betea eta zoriontsua ez oztopatzeke eta, horrez gain, haien gaitasunak indartu eta sendotzeko, pertsona autonomoak, askeak eta gizartean aktiboki inplikatuak izan daitezten.

Konpromiso horren barruan, **Zmz? Haur eta nerabeen ahotsa** ekimenaren helburua izan da Gipuzkoako gazteenei ahotsa ematea, politika publikoak diseinatzerakoan eta lurralde zein toki mailako jarduerak planifikatzerakoan beren ikuspegia, kezkak eta proposamenak txertatzeko. Gainera, haurren eta nerabeen errealitateari buruzko ezagutza handitzeak erraztu egingo du haiekin konpromiso handiagoa duen agenda publikoa eta haien behar eta lehentasunetara hobeto egokitutako zerbitzu ea baliabide lagunkoiagoak izatea.

Gure asmoa da ikerketa honek denboran jarraipena eta egonkortasuna izatea, kontsulta aldian-aldian errepika dadin. Horrek aukera emango digu orain neurtzen ari garen dimentsioen bilakaeraren segimendua egiteko eta gure lurraldearen etorkizuneko herritarrekin elkarrizketa egonkorrerako gune bat finkatzeko.

Horrela, haien errealitatea hobeto ezagututa, beren beharrei erantzun hobea eman ahal izango diegu, beren bizitzako etapa bakoitzean goatzeko, esperimintatzeko eta protagonista izateko aukera eskaini ahal izango diegu, helduarorako prozesuan lagundu ahal izango diegu eta beren autonomia pertsonala garatzeko baliabide berrietan inbertitu ahal izango dugu, beren gaitasun eta harreman sozialak landu, ikasi eta indartu ditzaten.

**María José Telleria Etxeberria**

Kultura, Lankidetz, Gazteria eta Kirol Departamentuko foru diputatua




## Sarrera

Dokumentu honek **Zmz? Haur eta nerabeen ahotsa** azterketaren emaitzak aurkezten ditu. Azterlana Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol Departamentuaren ekimen bat da eta, Haur eta Gazteen Sustapen Zerbitzuak eta Gaztematika Sareak sustatuta, **lurraldeko haur eta nerabeen ongizate subjektiboaren maila** ezagutu nahi du.

Ikerketa Gipuzkoa osoko 8 eta 14 urte bitarteko haur eta nerabeen lagin zabal bati (aurrerantzean, HN) egindako kontsulta baten bidez egin da. Azterlanak aukera eman du haien bizitzako hainbat alderdi eta esparruri (osasuna, hezkuntza, gizarte-harremanak, aisia, familia, etab.) buruzko iritzia eta pertzepzioetan sakontzeko, ikuspegi subjektibo batetik HNen ongizateari buruzko ezagutza sortu eta eztabaida publikoa elikatzeko xedez.

Ekimen honen helburua da, besteak beste, Haurren eta Nerabeen Eskubideei buruzko Konbentzioan (aurrerantzean, HNEK) ezarritakoarekin bat etorritik HNen parte-hartzea sustatzea. Era berean, bat dator 2030 Agendako Garapen Jasangarrirako 16.7 Helburuarekin, hau da, “maila guztietan erabaki inklusibo, partaidetzazko eta ordezkagarriak hartzea bermatzearekin”.

Zehazkiago, azterlan honen bidez Gipuzkoako HNei ahotsa eman nahi izan zaie, honako hauetarako:



Hona hemen txostena osatzen duten atalen edukia laburtuta:

- **Metodologia:** Kapitulu honetan, haurren eta nerabeen “ongizate subjektiboaren” definizioa, galdetegiaren oinarri den eredu eta ongizatearekin eta bizi-kalitatearekin lotutako dimentsioak azaltzen dira. Halaber, datuak biltzeko prozesua nolakoa izan den eta kontsultan izandako parte-hartzeari buruzko informazioa jasotzen ditu.
- **Emaitza nagusiak:** Kapitulu honetan, Gipuzkoako haurren eta nerabeen ongizate subjektiboaren ikuspegi orokorra lortzen lagun dezaketen bi alderdiri buruzko emaitzak aurkezten dira: bizitzarekiko gogobetetze maila orokorra eta norberak hautemandako ongizate subjektiboaren indizea.
- **Emaitzak esparruka:** Kapitulu honek Gipuzkoako haurren eta nerabeen gogobetetzean sakontzen du, haien ongizatean eta bizi-kalitatean eragiten duten 8 dimentsio edo esparruri dagokienez: familia-bizitza, ongizate materiala, osasuna, autonomia, eskola-bizitza, gizarte-harremanak, aisia eta denbora libre, eta bizi diren auzoa edo herria.
- **Ondorioak:** Kapitulu honetan azterketaren emaitza nagusiak azaltzen dira, laburtuta.
- **Eranskinak:** Kapitulu honetan formula estatistikoei eta egindako azterketari buruzko oharra eta argibideak jasotzen dira, bai eta adin-talde bakoitzerako erabilitako galdetegiak ere. Gainera, estatistika-taula osagarri batzuk eta bibliografiari buruzko atal bat ere baditu.



# Metodologia



## 1. Metodologia

---

- 1.1 | **Zer da hauren eta nerabeen ongizate subjektiboa?**
- 1.2 | **Zer eredutan oinarritu da azterketa hau?**
- 1.3 | **Nolakoa da galdetegia? Zer dimentsio edo esparru aztertzen ditu?**
- 1.4 | **Nola eta noiz galdetu da?**
- 1.5 | **Nork bete du inkesta?**

## **1.1. Zer da haurren eta nerabeen ongizate subjektiboa?**

HNeen ongizate subjektiboa honela definitzen da: norberaren bizitzari eta bizibaldintzei buruzko **pertzepzioak, ebaluazioak eta nahiak**<sup>1</sup>. Hau eta nerabeen ongizate subjektiboa ezagutzeaz ari garenean, haien bizi-kalitatearen ebaluazioaz ari gara, alderdi materialak zein ez-materialak kontuan hartuta: pertsonak duen gogobetetze maila bere buruarekin, familiarekin, lagunekin, ikastetxearekin, egiten dituen jarduerekin, denboraren erabilerarekin, bizi den auzoarekin edo herriarekin, eta abarrekin.

Gaiari buruzko aurreko azterlanek adierazten dutenez, gogobetetze-iritziek korrelazio-maila handiagoa dute ongizate subjektiboarekin ongizatearen baldintza objektiboekin baino<sup>2</sup>. Pertsona batek zorientasunari edo gogobetetzeari buruzko iritzi bat ematen duenean, dela bere bizitzarekiko, dela haren esparru jakin batekiko, nolabait hitzez adierazten ari da bere bizitzarekiko edo bizitza-esparru horrekiko duen jarrera<sup>3</sup>.

Oro har, HNEk oso ondo baloratzen dituzte beren ongizatea eta bizi-kalitatea, bizitzarekiko baikortasun-jarrerarekin. Horregatik, antzeko ezaugarriak dituzten beste azterlan batzuen ildotik<sup>4</sup>, funtsezkoa da arreta jartzea haien gogobetetzea modu positiboan edo negatiboan alda dezaketen ñabardura eta alderdi guztietan.

Haurtzaroko eta nerabegaroko ongizate subjektiboa sustatzea beharrezkoa da HNEK benetan betetzeko, haurrak eta nerabeak eskubidedun subjektu gisa aitortuz, gaur egun, eta ez haien pertzepzioak etorkizunerako, helduak direnerako, kontuan hartzen dituen prozesu baten emaitza gisa<sup>5</sup>. Horrek, halaber, biztanleria-talde horri zuzentzen zaizkion politika publikoak

<sup>1</sup> Casas, Ferran y Bello, Armando (Coord.). *Calidad de vida y bienestar subjetivo en España*. Unicef España, Madrid. Febrero 2012, 26 or.

<sup>2</sup> García Martín Miguel Ángel. "Desde el concepto de felicidad al abordaje de las variables implicadas en el bienestar subjetivo: un análisis conceptual", *Revista Digital*. Buenos Aires, 8 (48), 2002.

<sup>3</sup> Américo Cuervo-Arango, María. "La calidad de vida. Juicios de satisfacción y felicidad como indicadores actitudinales de bienestar", *Revista de Psicología Social*, 8 (1), 1993.

<sup>4</sup> Institut Infància i Adolescència de Barcelona. *Anàlisi en profunditat de l'enquesta de benestar subjectiu de la infància a Barcelona. Document de bases per a l'informe Parlen els nens i nenes: el benestar subjectiu de la infància a Barcelona*. IIAB i Ajuntament de Barcelona. 2018 eta 2022.

<sup>5</sup> Oyanedel, Juan Carlos, Alfaro, Jaime, & Mella, Camila. "Bienestar Subjetivo y Calidad de Vida en la Infancia en Chile", *Revista Latinoamericana de Ciencias Sociales, Niñez y Juventud*, 13 (1). 2015.

etengabe hobetzea dakar, bereziki, beren bizitzako hainbat esparrutan dituzten pertzepzioak, ebaluazioak eta asmoak zuzenean ezagututa.

## 1.2. Zer eredutan oinarritu da azterketa hau?



Haurren eta nerabeen ongizate subjektiboa neurtzeko erreferentziatzko tresnetako bat da Children's Worlds-ek (ISCweb ingelesezko sigletan) egindako **haurren ongizateari buruzko nazioarteko inkesta**. ISCweb inkesta kolektibo horren ongizate subjektiboari buruz mundu mailan egindako ikerketa baten parte da, eta HNek beraiek egindako ebaluazioaren azterketan jartzen du arreta. Pandemiaren aurreko azken edizioan (2016-2020), 40 herrialdetako 128.000 HN baino gehiagok parte hartu dute, eta eredu hori haurren eta nerabeen ongizate subjektiboa neurtzeko nazioarteko erreferente gisa finkatu da.

Aldez aurretik testatutako ongizate subjektiboko eskala psikometrikoek osatzen dute galdetegia. Zehazki, ISCweb-ek bizi-kalitatea neurtzeko bi ikuspegi biltzen ditu: bata, HNen ikuspegi subjektiboen bidez (beren bizitzari buruz dituzten pertzepzioak, pentsamenduak eta sentimenduak), eta bestea, beren aisialdiko jarduerak eta denboraren erabilera, eta haien ongizate-sentsazioan zuzenean nola eragiten duten ulertuz, besteak beste.

## 1.3. Nolakoa da galdetegia? Zer dimentsio edo esparru aztertzen ditu?

**Zmz? Haur eta nerabeen ahotsa** azterlanean **banakako galdetegi bat aplikatu da, autoadministratua eta online**, eta horrek esan nahi du HNek autonomiaz erantzun diotela inkestari.

Galdetegia diseinatzeko, lehen aipatutako nazioarteko azterlanean erabilitako galdera-sortako galderak hartu dira abiapuntu. Hala ere, erreferentziatzko galdetegian oinarrituta, hainbat doikuntza egin dira eta galdera berri batzuk sau dira.



## METODOLOGIA

Egindako egokitzapenek beste azterketa batzuekiko konparazioa balio gabetzen ez dutela eta diseinuak zorrotasun egokia izaten jarraitzen duela ziurtatzeko, hainbat aditu kontrastatu dute<sup>6</sup>.

Galdetegia adin desberdinetako HNetara egokitzeko eta guztientzat ulergarria izatea lortzeko, **galdetegiaren 3 aldaera** diseinatu dira: bat 8 eta 9 urte bitarteko haurrekin edo lehen hezkuntzako 3. eta 4. mailako haurrekin edo irakurtzeko zailtasunak edo bestelako premia bereziak dituztenekin aplikatzeko; beste bat 10 eta 11 urteko haurrekin edo lehen hezkuntzako 5. eta 6. mailakoekin aplikatzeko; eta hirugarren bat 12 eta 14 urte bitarteko nerabeekin edo bigarren hezkuntzako 1., 2. edo 3. mailako nerabeekin aplikatzeko.

Halaber, txikienei zuzendutako galdetegia behar bezain ulergarria zela ziurtatzeko, aurre-test bat egin da 8 eta 9 urte bitarteko haurrekin<sup>7</sup>.

### Adinaren arabera erabilitako galdetegi-ereduak

	1 GALDETEGIA*	2. GALDETEGIA	3. GALDETEGIA
Adina	8-9 urte	10-11 urte	12-14 urte
Mailak	Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailak	Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1., 2. eta 3. mailak
Erabilitako eskalak	Gogobetetzea: 5 puntuko eskala numerikoa (1-5) Ados/Ez ados: 5 puntuko Likert eskala	Gogobetetzea: 11 puntuko eskala numerikoa (0-11) Ados/Ez ados: 5 puntuko Likert eskala	Gogobetetzea: 11 puntuko eskala numerikoa (0-11) Ados/Ez ados: 5 puntuko Likert eskala
Galdera-kopurua	30	45	48

Oharra: Irakurtzeko zailtasunak edo premia bereziak dituzten HNeek galdetegiaren lehen eredua bete dute.

<sup>6</sup>Ferran Casas (Universidad de Girona), Mari Corominas (Institut Infància i Adolescència de Barcelona) eta Asier Huegun (Universidad del País Vasco /Euskal Herriko Unibertsitatea).

<sup>7</sup>Informazioa biltzeko prozesua hasi aurretik, 8 eta 10 urte bitarteko 13 haurrekin galdetegiaren lehen eredua aztertu zen, Bidebietako Hautxokoan (Donostian), formulatutako itemen irakurgarritasun eta ulermen maila ebaluatzeko.



**METODOLOGIA**

Galdetegi-eredu bakoitzeko galderak honela egituratu dira: sarrerako atal bat, identifikazio-datuei buruzko atal bat eta beste 10 atal, hainbat gairi buruzkoak.

**Inkestaren egitura**

ATALA	INFORMAZIO-MOTA	GALDERA-KOPURUA		
		LH 3 eta 4	LH 5 eta 6	DBH 1, 2 eta 3
<b>SARRERA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ekimenaren aurkezpena</li> <li>Ikasleentzako jarraibideak</li> </ul>	-	-	-
<b>ZURI BURUZ</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Sexua, adina eta ikasmila</li> <li>Bizi den udalerrria</li> <li>Ikastetxearen izena</li> <li>Jaiolekua (lurraldea)</li> </ul>	7	7	7
<b>ZURE FAMILIARI BURUZ</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Familia-mota</li> <li>Etxebizitza nagusiko pertsona-multzoa</li> <li>Hautemandako familia-giroa</li> <li>Familiarekiko gogobetetze maila</li> </ul>	3	5	5
<b>BIZI ZAREN ETXEARI BURUZ</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Etxearekiko gogobetetze maila</li> <li>Norbere ondasunekiko gogobetetze maila</li> <li>Norbere ondasunak</li> <li>Etxeko baldintzak</li> </ul>	3	9	9
<b>ZURE IKASTETXEARI BURUZ</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hautemandako eskola-giroa</li> <li>Eskolarako bidearen ezaugarriak</li> <li>Eskola-bizitzarekiko gogobetetze maila</li> <li>Berdinen arteko indarkeria</li> </ul>	4	4	4
<b>ZURE LAGUNEI BURUZ</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hautemandako lagun-giroa</li> <li>Eskolaz kanpoko harremanak</li> <li>Lagunekiko gogobetetze maila</li> <li>Lagunekin erabilitako euskara</li> </ul>	4	6	6
<b>BIZI ZAREN HERRIARI EDO AUZOARI BURUZ</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hautemandako auzo- edo herri-giroa</li> <li>Herri edo auzoarekiko gogobetetze maila</li> <li>Auzoan edo herrian parte hartzea</li> </ul>	1	3	3
<b>ZURE DENBORAREN ERABILERARI BURUZ</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Eskolaz kanpoko jarduerak</li> <li>Aisialdiaren erabilerarekiko gogobetetze maila</li> </ul>	1	3	3
<b>NOLA SENTITZEN ZAREN</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Osasunarekiko gogobetetze maila</li> <li>Norbere gorputzarekiko gogobetetze maila</li> <li>Sentitzen duen segurtasun mailarekiko gogobetetzea</li> <li>Duten askatasunarekiko gogobetetze maila</li> <li>Helduek entzuten dieten moduarekiko gogobetetze maila</li> <li>Afektu positiboak eta negatiboak</li> <li>Bizitzarekiko gogobetetze maila</li> </ul>	4	4	4
<b>KEZKA ERAGITEN DIZUTEN GAUZEI BURUZ</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Genero-desberdintasunarekiko kezka</li> <li>Sentimenduak eta itxaropenak</li> </ul>	0	1	2
<b>SEXUALITATEARI BURUZ</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Sexualitatearekin lotutako informaziorako sarbidea</li> </ul>	0	0	2
<b>AZKEN GALDERAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Haur eta nerabeen eskubideen ezagutza</li> <li>Galdetegiaren balorazioa</li> </ul>	3	3	3
<b>GUZTIRA</b>		<b>30</b>	<b>45</b>	<b>48</b>

Iturria: geuk egina.






## METODOLOGIA

Azkenik, galdetegiaren emaitzak 8 dimentsio edo esparrutan multzokatu dira, eta horiek 2030 Agendako GJHen 12 xede estrategikorekin lotu daitezke. Hurrengo taulan ikus daiteke galdetegiaren edukien, emaitzak aurkezteko erabili diren esparru edo dimentsioen eta GJHen xedeen arteko lotura:

### Esparruaren arabera emaitzen aurkezpenaren egitura eta GJH-en xedeekiko lotura

ESPARRU EDO DIMENTSIONA	EDUKIAK	GJH-EN XEDEEKIKO LOTURA
<b>FAMILIA-BIZITZA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hautemandako familia-giroa</li> <li>Familiarekiko gogobetetze maila</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>1.3 Estatuan guztiontzako gizarte-babeseko sistema eta neurri egokiak ezartzea, gutxieneko mailak barne, eta, hemendik 2030era, pertsona pobre eta kalteberen estaldura zabala lortzea.</li> </ul>
<b>ONGIZATE MATERIALA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Etxearekiko gogobetetze maila</li> <li>Norbere ondasunekiko gogobetetze maila</li> <li>Norbere ondasunak</li> <li>Etxeko baldintzak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>1.2 Pobreziaren dimentsio guztietan bizi diren adin guztietako gizonen, emakumeen eta haurren proportzioa gutxienez erdira murriztea, nazioko definizioen arabera.</li> </ul>
<b>OSASUNA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Osasunarekiko gogobetetze maila</li> <li>Norbere gorputzarekiko gogobetetze maila</li> <li>Afektu positiboak eta negatiboak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>3.8. Osasun-estaldura unibertsala lortzea, finantza-arriskuen aurkako babesa, kalitatezko funtsezko osasun-zerbitzuetarako sarbidea eta guztientzat kaltegabeak, eraginkorrak, eskuragarriak eta kalitatezkoak diren medikamentu eta txertoetarako sarbidea barne.</li> </ul>
<b>AUTONOMIA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Sentitzen duen segurtasun mailarekiko gogobetetzea</li> <li>Duten askatasunarekiko gogobetetze maila</li> <li>Helduek entzuten dieten moduarekiko gogobetetze maila</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>10.2 Pertsona guztien gizarteratze sozial, ekonomiko eta politikoa bultzatzea eta sustatzea, haien adina, sexua, desgaitasuna, arraza, etnia, jatorria, erlijioa edo egoera ekonomiko edo beste edozein baldintza kontuan hartu gabe.</li> </ul>
<b>ESKOLA-BIZITZA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hautemandako eskola-giroa</li> <li>Eskolarako bidearen ezagutgarriak</li> <li>Eskola-bizitzarekiko gogobetetze maila</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>4.1. Haur guztiek lehen eta bigarren hezkuntza amaitzen dutela ziurtatzea, doakoa, ekitatiboa eta kalitatezkoa izan behar duela eta ikaskuntza-emaitza egokiak eta eraginkorrak lortu behar dituela.</li> </ul>
<b>LAGUNAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hautemandako lagun-giroa</li> <li>Eskolaz kanpoko harremanak</li> <li>Lagunekiko gogobetetze maila</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>5.c. Genero-berdintasuna eta emakume eta neska guztien ahalduntzea maila guztietan sustatzeko politika egokiak eta lege aplikagarriak onartzea eta indartzea.</li> </ul>
<b>AISIA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Eskolaz kanpoko jarduerak</li> <li>Aisialdiaren erabilerarekiko gogobetetze maila</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>11.7. Berdegune eta espazio publiko seguru, inklusibo eta irisgarrietarako sarbide unibertsala ematea, bereziki emakumeentzat eta haurrentzat, adinekoentzat eta desgaitasunen bat duten pertsonentzat.</li> </ul>
<b>AUZOA/HERRIA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hautemandako auzo- edo herri-giroa</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>11.3. Urbanizazio inklusiboa eta iraunkorra handitzea, bai eta he-</li> </ul>

## METODOLOGIA

ESPARRU EDO DIMENTSIOA	EDUKIAK	GJH-EN XEDEEKIKO LOTURA
	<ul style="list-style-type: none"> <li>Herri edo auzoarekiko gogobetetze maila</li> <li>Auzoan edo herrian parte hartzea</li> </ul>	rrialde guztietako giza kokaguneen plangintza eta kudeaketa parte-hartzailea, integratua eta jasangarria egiteko gaitasuna ere.
<b>BESTE ALDERDI BATZUK</b>		
<b>berdinen arteko indarkeria</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Berdinen arteko indarkeria</li> </ul>	 <ul style="list-style-type: none"> <li>16.1 Indarkeria-mota guztiak eta dagozkien heriotza-tasak nabarmentzen murriztea mundu osoan.</li> </ul>
<b>sexu-hezkuntza</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Sexualitatearekin lotutako informaziorako sarbidea</li> </ul>	 <ul style="list-style-type: none"> <li>3.7. Sexu- eta ugalketa-osasuneko zerbitzuetarako sarbide unibertsala bermatzea, familia-plangintzakoak, informaziokoak eta hezkuntzakoak barne, eta ugalketa-osasuna estrategia eta programa nazionaletan integratzea.</li> </ul>
<b>berdintasuna</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Genero-desberdintasunetikiko kezka</li> </ul>	 <ul style="list-style-type: none"> <li>5.2 Eremu publikoan eta pribatuan emakume eta neska guztiak aurkako indarkeria-mota guztiak ezabatzea, salerosketa eta sexu-esplotazioa eta beste ustiapen-mota batzuk barne.</li> </ul>
<b>euskara</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Lagunekin erabilitako euskara</li> </ul>	 <ul style="list-style-type: none"> <li>4.1 Haur guztiak lehen eta bigarren hezkuntza amaituko dutela ziurtatzea, doakoa, ekitatiboa eta kalitatezkoa izan behar duela eta ikaskuntza-emaizta egokiak eta eraginkorrak lortu behar dituela.</li> </ul>
<b>eskubideak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Haurren eta nerabeen eskubideen ezagutza</li> </ul>	 <ul style="list-style-type: none"> <li>16.7 Beharriaz erantzuten dieten erabaki inklusibo, parte-hartzaile eta ordezkagarriak maila guztietan hartzen direla bermatzea.</li> </ul>

Iturria: geuk egina.

### 1.4. Nola eta noiz galdetu da?

**Inkestaren hedapena** Gipuzkoako lehen eta bigarren hezkuntzako ikastetxe publiko, pribatu edo itunduekin batera egin da (Lehen Hezkuntzako 3. mailatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailara arte). Parte hartzeko gonbidapena lurraldeko ikastetxe guztietara zabaldu da, ahalik eta HN gehienek galdetegia eskura zutela ziurtatzeko. Horietako askok proiektuarekin bat egin dute eta ikasleen artean galdetegia banatzea erraztu dute. Zehazki, 66 ikastetxe izan dira, publikoak zein pribatuak.

Ikastetxeetako irakasleek jarraibideak jaso dituzte inkesta ikasleen artean behar bezala aplikatzeko, bai eta orientabide zehatzak ere, inkesta ikasgelan aplikatu aurretik, bitartean eta ondoren zer egin jakiteko. Era berean, talde tekniko baten laguntza izan dute (zalantzak argitzeko, inkestaren





## METODOLOGIA

aplikazioaren jarraipena egiteko, etab.) informazioa biltzeko prozesu osoan zehar. Besteak beste, zailtasunak edo behar bereziak dituzten HNek ere inkestan parte hartu ahal izatea sustatzeko orientabideak sartu dira.

Informazio-bilketa 25 lanegunetan egin da, 2022ko azaroaren 4tik (ostirala) abenduaren 12ra (astelehena).

### 1.5. Nork bete du inkesta?

**Gipuzkoako udalerrri guztietako 8 eta 14 urte<sup>8</sup> bitarteko 10.178 HNk<sup>9</sup>** inkesta betetzea lortu da; horrek esan nahi du lurraldeko HNen % 20,1ek erantzun diola galdetegiari.

Parte-hartze maila horri esker, **estatistikoki** adin horretako biztanleria osoarentzat **esanguratsuak diren ondorioak** atera daitezke, % 95eko konfiantza mailarekin eta **+/-% 0,9 errore-tartearekin**. Hau da, laginean ikusitako balioak (eta emaitzen atalean aurkezten direnak) puntu bat gorabehera baino gutxiago alda daitezke biztanleria osoarentzat espero diren balioekin alderatuta.

Sexuaren eta adinaren arabera datuen desagregazioei dagokienez, datuek sendotasun nabarmena erakusten dute +/-%5 baino errore-marjina txikiagoarekin (datuak estatistikoki adierazgarriak izateko gehieneko onargarria). Horrek esan nahi du talde bakoitzerako ondorio orokorrak atera daitezkeela, sexuaren<sup>10</sup> eta adinaren arabera.

Lortutako laginaren haztapen bat egin da, sexuaren eta adinaren arabera unibertsoaren banaketa bera egiten dela bermatzeko. Horrela, hasierako joera batzuk zuzentzea lortu da, lortutako laginak mutilen eta 9 urtetik beherakoen gehiegizko ordezkariak baitzuen.

<sup>8</sup> Inkesta egin zen unean 8 urte bete gabe edo 14 urte beteta izanik, Lehen Hezkuntzako 3. mailan edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailan zeudenen erantzunak ere sartu dira.

<sup>9</sup> Azkenik, 10.178 galdetegi baliagarriekin egin da azterketa, baina parte-hartzea zertxobait handiagoa izan da (10.496); izan ere, galdetegi batzuk baztertu egin behar izan dira lehen arazketa batean.

<sup>10</sup> Kategoría ez-bitarrean kasu gutxi daudenez eta haien unibertsoa identifikatu ezinenez, ezinezkoa da errore-marjina kalkulatzeko, eta datuak tentuz hartu behar dira. Horregatik, oro har, kategoría hori SEXUAREN arabera gurutzaketatik kanpo utzi da. Hala ere, batez bestekoarekiko alde nabarmenak izan diren aldietan, eta laginaren mugak gorabehera, kategoría horretako datua sartzea erabaki da.

**METODOLOGIA**

Datuak ahalik eta ziurtasun handienarekin interpretatzeko, kontuan izan behar da eskualdeka bereizitako datuek joera jakin batzuk dituztela. Eskualde batzuetan, barne-laginaren sexuaren eta adinaren arabera banaketak ez du behar lukeen proportzionaltasuna eta, beraz, datuak tentuz hartu behar dira. Hori bereziki Oarsoaldean, Goierrin eta Bidasoa Beherean gertatzen da, 12 eta 14 urte bitarteko nerabeen gehiegizko presentzia baitago eta 8 eta 9 urte bitarteko neska-mutilen ordezkartza txikiagoa.

Aipatzekoa da kontsultatutako HN-en % 87,7k galdetegiari euskaraz erantzutea erabaki duela, eta % 12,3k gaztelaniaz.

Emaitzen ataletan, aztertutako datu guztiak aurkezten dira, eta estatistikoki<sup>11</sup> adierazgarritzat jo daitezkeen aldeak nabarmentzen dira.

**Azterketaren fitxa teknikoa**

Izenburua	NOLA EBALUATZEN DUTEN GIPUZKOAKO HAUR ETA NERABEEK BEREN ONGIZATEA			
Azterketaren arduraduna	Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetzta, Gazteria eta Kirol Departamentua			
Eremu geografikoa	Gipuzkoa			
Unibertsoa	8 eta 14 urte arteko Gipuzkoako biztanleak			
Parte hartu duten udalerrriak	88 (% 100)			
Parte hartu duten eskualdeak	10 (% 100)			
Laginaren tamaina	8 eta 9 urte	10 eta 11 urte	12tik 14 urtera	Guztira
	1.851	2.568	5.759	10.178
Lagin-mota	Kuota bidezko lagina			
Laginaren errore-marjina	+/-% 0,9 (% 95eko konfiantza maila)			
Bilketa-metodoa	Online inkesta			
Bilketa-aldia	Azaroaren 4tik abenduaren 12ra			
Egile teknikoa	EDE Fundazioa – EDE Conocimiento			

Iturria: geuk egina.

<sup>11</sup> Faktore baten ANOVAko F estatistikotik abiatuta, aldagai jarraituetarako estatistikoki esanguratsuak diren aldeak adierazi dira. Chi karratuko ( $X^2$ ) probatik abiatuta, estatistikoki esanguratsuak diren aldeak adierazi dira diskretuen kasuan.

# Emaitza nagusiak



## 2. Emaitza nagusiak: Gipuzkoako haur eta nerabeen ongizate subjektiboa



2.1 | **Zer neurritan daude pozik, oro har, beren bizitzarekin?**

2.2 | **Nola hautematen dute beren ongizatea?**

Kapitulu honetan, Gipuzkoako haurren eta nerabeen ongizate subjektiboaren ikuspegi orokorra lortzen lagun dezaketen bi adierazleri buruzko emaitzak aurkezten dira: **bizitzarekiko gogobetetze maila orokorra eta norberak hautemandako ongizatearen indizea.**

## 2.1. Zer neurritan daude pozik, oro har, beren bizitzarekin?

Bizitzarekiko gogobetetze maila orokorra 0 eta 10 puntu bitarteko eskala batean neurtzen da: gogobetetze maila txikiena "0" da eta erabateko gogobetetzea "10", eta galdera honi erantzuten dio: Zer neurritan zaude pozik, oro har, zure bizitzarekin?



**Gipuzkoako haur eta nerabeek puntuazio altua dute adierazle honetan: 10etik 9,1 puntukoa, hain zuzen.**

Ikerketa honetako datuak Bartzelonako Institut Infància i Catalunyak 2022an 10 eta 11 urte bitarteko haurrekin egindako antzeko ikerketa batekoekin alderatu ahal izateko, adin-talde horrek Gipuzkoan lortutako batez besteko puntuazioa kalkulatu da. Talde horretako datuek maila askoz altuagoa erakusten dute Gipuzkoan (9,4 puntu) Bartzelonan baino (8,7 puntu)<sup>12</sup>, baina alde horren arrazoia izan daiteke COVID-19 pandemia efektuak Bartzelonako urte hartako datuak asko baldintzatu izana.

**Sexuaren** arabera, mutilak (9,3 puntu) neskak (9 puntu)baino pixka bat gusturago daude orokorrean beren bizitzarekin, baina aldea txikia da. Laginaren tamaina txikia dela-eta datuak tentuz interpretatu behar diren arren, kontuan izan behar da ez mutil ez neska sentitzen diren pertsonak lortu dutela batez besteko puntuazio nabarmen txarrena (7,4 puntu).


**Adinak** aurrera egin ahala, beren bizitzarekiko batez besteko gogobetetzeak behera egiten du: 8 eta 9 urteko HNak dira gogobetetze-indize handiena duten taldea (9,6 puntu), eta gogobetetzea, berriz, 8,5 puntura jaisten da 12 eta 14 urte bitarteko nerabeen artean. Gainera, desbideratze tipikoa kontuan hartuta, aintzat hartu behar da baloratzeko orduan nerabeek osatzen dutela talde

<sup>12</sup> Institut Infància i Adolescència de Barcelona. *Anàlisi en profunditat de l'enquesta de benestar subjectiu de la infància a Barcelona. Document de bases per a l'informe Parlen els nens i nenes: el benestar subjectiu de la infància a Barcelona.* IIAB i Ajuntament de Barcelona. 2022.

## EMAITZA NAGUSIAK

heterogeneoena, hau da, talde horrek ematen dituen erantzunetan sakabanatze edo aldakortasun handiagoa dagoela.


### Bizitzarekiko gogobetetze maila orokorra sexuaren eta adinaren arabera. Batez besteko puntuazioak (0-10). Gipuzkoa. 2022



Oharra: faktore baten ANOVAra F estatistikoaren arabera, aldeak esanguratsuak dira SEXUREN eta ADINAREN arabera.

Hala ere, nesken eta mutilen gogobetetzearen arteko aldea ez da etengabea behatutako adin-tarte guztietan. 8 eta 11 urte bitartean ez da alde handirik ikusten neskek eta mutilek hautemandako beren ongizate subjektiboan. 12 urtetik aurrera, neskek mutilek baino puntuazio nabarmen baxuagoak lortu dituzte (0,7 puntu gutxiago).

### Bizitzarekiko gogobetetze maila orokorra sexuaren eta adinaren arabera. % Gipuzkoa. 2022



Oharra: faktore baten ANOVAra F estatistikoaren arabera, aldeak esanguratsuak dira SEXUAREN eta ADINAREN arabera.


Maiztasunen analisiaren arabera, hamar HNTik zortzi inguruk (% 78,7) gogobetetze maila oso handia erakusten du (9 edo 10 puntu) beren bizitzarekin, oro har. Hala ere, ez dugu ahaztu behar gogobetetze txikia edo moderatua erakusten dutenak (0 eta 6 puntu arteko puntuazioa eman dutenak) guztizkoaren % 5,1 direla.

**Sexuaren** arabera, gogobetetze-tarte txiki edo moderatuetan dauden nesken ehunekoa handiagoa da mutilena baino (% 6,3 eta % 3,4, hurrenez hurren). Era berean, bizitzarekin oso pozik dauden nesken ehunekoa (9-10 puntu) txikiagoa da mutilena baino (% 75,4 eta % 82,5, hurrenez hurren).

**Adinaren** arabera, bizitzarekiko gogobetetze-maila handia erakusten duten (9-10 puntu) HNen ehunekoa nabarmen jaisten da 12 urtetik aurrera.

EMAITZA NAGUSIAK

**Bizitzarekiko gogobetetze maila orokorra sexuaren eta adinaren arabera. %.**  
**Gipuzkoa. 2022**



Oharra: Khi-karratuarena (X<sup>2</sup>) probaren arabera, aldeak esanguratsuak dira SEXU eta ADINAREN arabera

Batez besteko puntuazioak beste identifikazio-aldagai batzuen arabera aztertu ondoren, honako desberdintasun hauek nabarmendu daitezke:

Guraso bakarreko **familiatan** bizi direnen gogobetetzea 8,2 puntukoa da, batez bestekoa baino ia puntu 1 txikiagoa. Familia nuklearretan bizi direnek (9,0) edo elkarren ahaide diren beste pertsona batzuk bizi diren familia zabaletako kide direnek eskaintzen dutena baino nota txikiagoa da (8,9 puntu).

**Eskualdeka**, datuak kontu pixka batekin hartu behar badira ere, ikusten da Debabarrenean eta Urola Erdian eta Garaian bizi diren HNak direla bizitzarekiko gogobetetze orokor handiena dutenak (9,3 eta 9,2, hurrenez hurren), eta Oarsoaldean eta Bidasoa Beherean bizi direnek, aldiz, gogobetetze txikiagoa erakusten dute (8,7 eta 8,5, hurrenez hurren).





EMAITZA NAGUSIAK

Bizitzarekiko gogobetetze maila orokorra. 0-10 eskala. Gipuzkoa. 2022

		Batezbest.	Desb. tipikoa	Moda	Ertaina	Gutxieneak.	Gehienuk.
<b>BIZITZAREKIKO GOGOBEETZE MAILA OROKORRA</b>		<b>9,1</b>	<b>1,5</b>	<b>10</b>	<b>10</b>	<b>0</b>	<b>10</b>
<b>SEXUA</b>	Neska	9	1,6	10	10	0	10
	Mutila	9,3	1,4	10	10	0	10
<b>ADINA</b>	8-9 urte	9,6	1,1	10	10	0	10
	10-11 urte	9,4	1,2	10	10	0	10
	12-14 urte	8,5	1,8	10	9	0	10
<b>FAMILIA-MOTA</b>	Familia nuklearra <sup>13</sup>	9	1,5	10	9	0	10
	Guraso bakarreko familia <sup>14</sup>	8,2	2	10	9	0	10
	Familia zabala <sup>15</sup>	8,9	1,7	10	10	0	10
	Beste mota bateko familia	8,3	2	10	9	0	10
<b>FAMILIA-ERRENTA ERABILGARRIA</b>	Baxua (< 37.500€)	9	1,6	10	10	0	10
	Ertaina (37.501€ - 41.500€)	9,2	1,5	10	10	0	10
	Altua (> 41.501€)	9,2	1,4	10	10	0	10
<b>UDALERRIAREN TAMAINA</b>	Txikia (< 4.000)	9,2	1,4	10	10	0	10
	Ertaina (4.001 - 10.000)	9,2	1,4	10	10	0	10
	Handia (> 10.000)	9,1	1,6	10	10	0	10
<b>ESKUALDEA<sup>16</sup></b>	Urola Kosta	9,3	1,3	10	10	0	10
	Urola Erdia eta Garaia	9,2	1,5	10	10	0	10
	Tosaldea	9,1	1,6	10	10	0	10
	Oarsoaldea	8,7	1,7	10	9	0	10
	Goierri	8,9	1,7	10	10	0	10
	Donostia	9,1	1,4	10	10	0	10
	Debagoiena	9,1	1,4	10	10	0	10
	Debarrena	9,3	1,3	10	10	0	10
	Buruntzaldea	9,1	1,6	10	10	0	10
Bidasoa Beherea	8,5	1,9	10	9	0	10	

Oharra: Faktore baten ANOVAko F estatistikaren arabera, aldeak esanguratsuak dira SEXUAREN, ADINAREN, FAMILIA-MOTAREN ETA ESKUALDEAREN arabera.

<sup>13</sup> Seme-alabak dituen familia nuklearra bikote ezkondu batek eta bere seme-alabek osatzen dute (Eustat).

<sup>14</sup> Guraso bakarreko familia aita edo ama bakar batek eta bere seme-alabek osatzen dute (Eustat).

<sup>15</sup> Familia zabala edozein motatako familia-nukleo batek eta berekin bizi diren ahaideek osatzen dute (Eustat)

<sup>16</sup> Eskualde bakoitzaren osaera ezagutzeko, ikus eranskinak.


## 2.2. Nola hautematen dute beren ongizatea?

Gipuzkoako HNen ongizatea neurtzeko kontuan hartu den bigarren adierazlea norberak hautemandako ongizatearen indizea (CW-SWBS) da, eta haren balioa ere 0 eta 10 puntu bitartekoa da. Indize horrek puntuazio bakarrean laburbiltzen ditu HNek ongizate subjektiboa neurtzen duten 5 itemi ematen dizkieten erantzunak. Zehazki, item hauek dira: “nire bizitzan ondo doakit”, “bizitza ona dut”, “nire bizitzan gertatzen zaizkidan gauzak bikainak dira”, “nire bizitza gustatzen zait”, “nire bizitzaz gozatzen dut” eta “zoriontsu naiz nire bizitzarekin”.

**Gipuzkoako HNek puntuazio nahiko altua lortu dute indize horretan ere: 10etik 9 puntu.**

Azterlan honen emaitzak antzeko beste azterlan batzuen emaitzekin alderatu ahal izateko, 12 urte dituztenak bakarrik hartu dira kontuan indizea kalkulatzeko. Adin horretan, Gipuzkoako neska-mutilek 8,8 puntuko tasa dute, Europako beste eskualde eta herrialde batzuetako tasaren oso antzekoa<sup>17</sup>: Katalunia (8,8), Espainia (8,7) edo Alemania (8,2). norberak hautemandako ongizatearen adierazlea.

**Norberak hautemandako ongizatearen CW-SWBS indizea 12 urteko haurren artean. Batez besteko puntuazioa 0tik 10era. Europako hainbat herrialde eta eskualde. 2022**



Iturria: geuk egina, ISCWeBtik eta ZMZ? Haur eta nerabeen ahotsa inkestatik abiatuta.


<sup>17</sup> Rees, G., Savahl, S., Lee, B. J., & Casas, F.(eds.). Children's views on their lives and well-being in 35 countries: A report on the Children's Worlds project, 2016-19. Jerusalem, Israel: Children's Worlds Project (ISCWeB). 2020.

## EMAITZA NAGUSIAK

**Sexuaren** arabera, mutilen indizea neskena baino zertxobait handiagoa da (9,1 eta 8,9 puntu, hurrenez hurren). Lagina oso txikia izanik datuak tentuz hartu behar diren arren, kontuan izan behar da ez mutil ez neska sentitzen ez direnek (beren burua ez-bitar gisa identifikatzen dutenek) indize nabarmen txikiagoa dutela (7,4 puntu).

**Adinaren** arabera, 12 urtetik aurrera indize horren batez besteko puntuazioa nabarmen jaitsi da.

### Norberak hautemandako bere ongizatearen indizea sexuaren eta adinaren arabera. Batez besteko puntuazioak (0-10). Gipuzkoa. 2022




Oharra: faktore baten ANOVAra F estatistikoaren arabera, aldeak esanguratsuak dira SEXUAREN eta ADINAREN arabera.

Nesken eta mutilen gogobetetzearen arteko aldea ez da etengabea behatutako adin-tarte guztietan. 8 eta 11 urte bitartekoen artean ez da alde handirik ikusten neskek eta mutilek hautemandako beren ongizatean. 12 urtetik aurrera, neskek mutilek baino puntuazio nabarmen baxuagoak lortu dituzte (0,6 puntu gutxiago).

EMAITZA NAGUSIAK

Norberak hautemandako bere ongizatearen indizea sexuaren eta adinaren arabera. Batez besteko puntuazioak (0-10). Gipuzkoa. 2022



Oharra: faktore baten ANOVAra F estatistikoaren arabera, aldeak esanguratsuak dira SEXUAREN eta ADINAREN arabera.


Erantzunak puntuazio-mailen arabera hainbat kategoriatan multzokatzen badira, ikusten da Gipuzkoan hamar HNTik zazpik (% 69,9) hautemandako beren ongizatea maila oso altuetan kokatzen dutela (9-10 puntu), % 21,7k maila altuetan (7-8 puntu), % 5,1ek maila ertainetan (5-6 puntu) eta % 3,3k maila baxuetan (0-4 puntu). Horrek esan nahi du haurren eta nerabeen % 8,4k gogobetetze maila ertaina edo txikia duela.

**Sexuaren** araberako analisiak adierazten du tarte altuenetan dauden nesken ehunekoa mutilena baino pixka bat txikiagoa dela (% 68 eta % 72,7, hurrenez hurren) eta, aitzitik, horien pisua handiagoa dela ongizate-tarte moderatuetan edo baxuetan (% 9,8 eta % 6,4, hurrenez hurren).

**Adinak** gora egin ahala, ongizate-tarte altuenetan kokatzen diren HNen ehunekoak behera egiten du pixkanaka (9-10 puntu). Zehazki, 12 urtetik aurrera, % 53,1 baino ez dago maila horietan.

EMAITZA NAGUSIAK

Norberak hautemandako bere ongizatearen indizea sexuaren eta adinaren arabera. %  
Gipuzkoa. 2022



Oharra: Khi-karratuarena ( $\chi^2$ ) probaren arabera, aldeak esanguratsuak dira SEXU eta ADINAREN arabera.

Batez besteko puntuazioak aldatu egiten dira aldagai soziodemografiko batzuen arabera:

**Familia** nuklear batean bizi direnek hautemandako ongizatearen indizea gainerako familia bano handiagoa da (8,9 puntu). Aldea are handiagoa da guraso bakarreko familietan bizi direnen batez besteko puntuazioarekin alderatuz gero (8,1 puntu). Beste familia-mota batzuek ere (berreratutako familiak...) batez besteko puntuazio txikiagoa lortu dute (8 puntu), baina kasu horietan lagina txikia denez, datuak tentuz hartu behar dira.

**Udalerriaren tamainaren** arabera, herri txikietan (4.000 biztanle baino gutxiagokoetan) bizi direnek gainerakoek baino puntuazio apur bat handiagoa dute (9,1), eta udalherri handietan bizi direnek, berriz, batez besteko puntuazio txikiagoa (8,9).

Bestalde, **testuinguru ekonomiko** xumeagoetan bizi direnek hautemandako beren ongizatearen batez besteko indizea zertxobait baxuagoa da (8,8 puntu) testuinguru ekonomiko ertain edo altuetan bizi direnena baino (9 puntu).



**EMAITZA NAGUSIAK**

**Eskualdeei** dagokienez, datuak tentuz hartu behar dira. Debarrenean eta Urola Kostan bizi diren HNen batez besteko puntuazioa handiagoa da (9,2 puntu) beste eskualde batzuetan bizi direnena baino, eta Bidas oa Beherean eta Oarsoaldean bizi direnen batez besteko puntuazioa nabarmen txikiagoa da (8,4 eta 8,5 puntu, hurrenez hurren).

**Norberak hautemandako bere ongizatearen indizea. 0-10 Eskala. Gipuzkoa. 2022**

		Batezbest.	Desb. tipikoa	Moda	Ertaina	Gutxienek.	Gehienez.
<b>NORBERAK HAUTEMANDAKO BERE ONGIZATE SUBJEKTIBOA</b>		<b>9,0</b>	<b>1,5</b>	<b>10,0</b>	<b>9,5</b>	<b>0,0</b>	<b>10,0</b>
<b>SEXUA</b>	Neska	8,9	1,6	10,0	9,5	0,0	10,0
	Mutila	9,1	1,4	10,0	9,7	0,0	10,0
<b>ADINA</b>	8-9 urte	9,4	1,0	10,0	9,8	0,0	10,0
	10-11 urte	9,2	1,2	10,0	9,7	0,0	10,0
	12-14 urte	8,4	1,8	10,0	9,0	0,0	10,0
<b>FAMILIA-MOTA</b>	Familia nuklearra <sup>18</sup>	8,9	1,5	10,0	9,5	0,0	10,0
	Guraso bakarreko familia <sup>19</sup>	8,1	2,0	10,0	8,8	0,5	10,0
	Familia zabala <sup>20</sup>	8,7	1,8	10,0	9,3	0,0	10,0
	Beste mota bateko familia	8,0	2,1	10,0	8,7	0,0	10,0
<b>FAMILIA-ERRENTA ERABILGARRIA</b>	Baxua (< 37.500€)	8,8	1,6	10,0	9,5	0,0	10,0
	Ertaina (37.501€ - 41.500€)	9,0	1,5	10,0	9,7	0,0	10,0
	Altua (> 41.501€)	9,0	1,4	10,0	9,7	0,0	10,0
<b>UDALERRIAREN TAMAINA</b>	Txikia (< 4.000)	9,1	1,4	10,0	9,7	0,0	10,0
	Ertaina (4.001 - 10.000)	9,0	1,4	10,0	9,7	0,0	10,0
	Handia (> 10.000)	8,9	1,6	10,0	9,5	0,0	10,0
<b>ESKUALDEA<sup>21</sup></b>	Urola Kosta	9,2	1,2	10,0	9,7	0,0	10,0
	Urola Erdia eta Garaia	9,0	1,5	10,0	9,7	0,0	10,0
	Tolosaldea	8,9	1,7	10,0	9,7	0,0	10,0
	Oarsoaldea	8,5	1,8	10,0	9,2	0,0	10,0
	Goierri	9,0	1,6	10,0	9,7	0,0	10,0
	Donostia	9,0	1,4	10,0	9,7	0,0	10,0
	Debagoiena	9,0	1,4	10,0	9,5	0,2	10,0
	Debarrena	9,2	1,2	10,0	9,7	2,0	10,0
	Buruntzaldea	8,9	1,6	10,0	9,5	0,0	10,0
	Bidasoa Beherea	8,4	1,9	10,0	9,0	0,0	10,0

Oharra: Faktore baten ANOVArako F estatistikaren arabera, aldeak esanguratsuak dira SEXUAREN, ADINAREN, FAMILIA-MOTAREN ETA ESKUALDEAREN arabera.

<sup>18</sup> Seme-alabak dituen familia nuklearra bikote ezkondu batek eta bere seme-alabek osatzen dute (Eustat).

<sup>19</sup> Guraso bakarreko familia aita edo ama bakar batek eta bere seme-alabek osatzen dute (Eustat).


<sup>20</sup> Familia zabala edozein motatako familia-nukleo batek eta berekin bizi diren ahaideek osatzen dute (Eustat)

<sup>21</sup> Eskualde bakoitzaren osuera ezagutzeko, ikus eranskinak.

# Emaitzak esparruka



### 3. Emaitzak Gipuzkoako haur eta nerabeen bizitzako esparruetan

- 
- 3.1 | **Zer esparrutan dute gogobetetze maila handiena? Eta txikiena?**
  - 3.2 | **Zer gogobetetze maila dute beren FAMILIA-BIZITZAREKIN?**
  - 3.3 | **Zer gogobetetze maila dute beren ONGIZATE MATERIALAREKIN?**
  - 3.4 | **Zer gogobetetze maila dute beren OSASUNAREKIN?**
  - 3.5 | **Zer gogobetetze maila dute beren AUTONOMIAREKIN?**
  - 3.6 | **Zer gogobetetze maila dute beren ESKOLA-BIZITZAREKIN?**
  - 3.7 | **Zer gogobetetze maila dute beren LAGUNEKIN?**
  - 3.8 | **Zer gogobetetze maila dute beren AISIAREKIN?**
  - 3.9 | **Zer gogobetetze maila dute beren AUZO/HERRIAREKIN?**





Kapitulu honetan HNek beren ongizatearekin eta bizi-kalitatearekiko lotutako alderdiekiko erakutsi duten gogobetetzearen azterketa xehatua eskaintzen da. Zortzi dimentsio edo esparrutan multzokatu dira: **familia-bizitza; ongizate materiala; osasuna; autonomia; eskola-bizitza; lagunak; aisia eta auzoa edo herria.**

Gainera, azkenean, kontsultan sartu diren beste gai batzuei buruzko datuak erakusten dira: berdinen arteko indarkeria, sexualitatea, berdintasuna, euskara eta eskubideak.

### **3.1. Zer esparrutan dute gogobetetze maila handiena? Eta txikiena?**

Esparruen arabera multzokatutako datuen irakurketak erakusten du HNak bereziki pozik daudela beren ongizate materialarekin eta familiako bizitzarekin (bi kasuetan batez besteko gogobetetzea 10etik 9,4 puntukoa da). Lagunekin eta bizi diren auzo edo herriarekin ere oso pozik daude (10etik 9,2 puntuko batez besteko gogobetetzea dute).

Honako esparru hauetan ikusten da hobekuntza-marjina handiena:

- Aisia (8,6 puntu, batez beste), batez ere erabilgarri duten denbora librearekin (8,3 puntu).
- Eskola-bizitza (8,6 puntu, batez beste), batez ere eskola-ikaskuntzekin (8,4 puntu) eta ikasle-bizitzarekin (8,6 puntu).
- Autonomia (8,6 puntu, batez beste), batez ere helduek entzuten dieten moduari dagokionez (8,4 puntu) eta seguru sentitzeari dagokionez (8,6 puntu).
- Osasuna (8,7 puntu, batez beste), batez ere norberaren gorputzarekiko gogobetetzeari dagokionez (8,3 puntu).

**EMAITZAK ESPARRUKA**

**Ongizatearekin eta bizi-kalitatearekin lotutako alderdiekiko gogobetetze maila dimentsio edo esparruen arabera. Batez besteko puntuazioak (0-10). Gipuzkoa. 2022**



## EMAITZAK ESPARRUKA

Batez besteko balioez harago, hurrengo grafikoan ikus daiteke lau puntuazio-tartetan maiztasunek duten banaketa: puntuazio txikia edo oso txikia (4 puntu edo gutxiago); puntuazio moderatua (5 eta 6 puntu artean); puntuazio altua (7 eta 8 puntu artean); eta puntuazio oso altua (9 eta 10 puntu artean).

HNen % 80 baino gehiago oso pozik dago dituen gauzekin (% 86,7), beraiekin bizi diren pertsonekin (% 85,7), beren etxearekin (% 85,3), beren osasunarekin (% 83,9) eta beren lagunekin (% 81,5). Gai horietan puntuazio txikia edo moderatua dutenen ehunekoa % 2,3 (dituzun gauzak) eta % 5 (zure osasuna) artekoa da.

Galdetutako haur eta nerabeen % 70 eta % 80 artean oso pozik daude beren herriarekin edo auzoarekin (% 78,8), beren gorputzarekin (% 77,4) eta aisialdian egiten dituzten gauzekin (% 75,4). Hala ere, ez da ahaztu behar HNen % 10,2 inguru gogobetetze maila baxu edo ertainean daudela norberaren gorputzarekiko.


Gogobetetze maila txikieneko alderdiak eta gutxi edo neurri batean asebetetako haur eta nerabeen ehuneko handia biltzen dutenak (% 8 eta % 14 artean) honako hauek dira:

- **Libre dudan denbora:** HNen % 56,5 oso pozik dago (9-10 puntu), baina % 13,8 oso gutxi edo nahiko pozik dago (7 puntu baino gutxiago).
- **Eskolan ikasitakoak:** HNen % 61,1 oso pozik dago (9-10 puntu); hala ere, % 11,5 oso gutxi edo nahiko pozik dago (7 puntu baino gutxiago).
- **Helduek nola entzuten didaten:** HNen % 62,1 oso pozik dago (9-10 puntu), baina % 11,8 oso gutxi edo nahiko pozik dago (7 puntu baino gutxiago).
- **Ikasle-bizitza:** HNen % 65,4 oso pozik dago (9-10 puntu), baina % 10,4 oso gutxi edo nahiko pozik dago (7 puntu baino gutxiago).
- **Zenbateraino sentitzen naizen seguru:** HNen % 69,6 oso pozik dago (9-10 puntu), eta % 10,8, berriz, oso gutxi edo nahiko pozik (7 puntu baino gutxiago).
- **Nire gorputza:** HNen % 77,4 oso pozik dagoen arren (9-10 puntu), % 10,2 oso gutxi edo nahiko pozik dago (7 puntu baino gutxiago).
- **Dudan askatasuna:** HNen % 72,7 oso pozik dago (9-10 puntu), baina % 8,1 oso gutxi edo nahiko pozik dago (7 puntu baino gutxiago).



**EMAITZAK ESPARRUKA**

**Ongizatearekin eta bizi-kalitatearekin lotutako alderdiekiko gogobetetze maila. %. Gipuzkoa. 2022**




### 3.2. Zer gogobetetze maila dute beren FAMILIA-BIZITZAREKIN?


Oro har, HNEk gogobetetze maila handia erakusten dute beraiekin etxean bizi diren pertsonari dagokienez. Esparru horrek 9,4 puntu lortu ditu, batez beste, eta analisisan aintzat hartutako dimentsio guztien artean ondoen baloratutako bat da.

Ez da alde nabarmenik ikusten **sexuaren** arabera balorazioan, eta nesken eta mutilen gogobetetzea oso antzekoa da (9,4 eta 9,5, hurrenez hurren).

**Adinaren** arabera, batez besteko gogobetetze mailak behera egiten du 12 urtetik aurrera. 11 urtera arte, batez besteko gogobetetzeak orokorra gainditzen du, eta 9,6-9,7 puntu ingurukoa da; 12-14 urteko nerabeen kasuan, berriz, puntuazio hori 9,1era jaisten da.



#### Etxean beraiekin bizi direnekiko gogobetetze maila, sexuaren eta adinaren arabera. Batez besteko puntuazioak (0-10). Gipuzkoa. 2022




Oharra: Faktore baten ANOVAra F estatistikoaren arabera, aldeak esanguratsuak dira ADINAREN arabera.

**EMAITZAK ESPARRUKA**

Bi aldagai horien (sexua eta adina) maiztasunen analisiak informazio osagarria eskaintzen du, baina batez bestekoen analisiaren ildo beretik. Hala, HNen % 85,7 gogobetetze-tarte oso altuetan (9-10 puntu) kokatzen dira, beraiekin bizi diren pertsonetikiko gogobetetzeari dagokionez. Tarte horretan kokatzen diren nesken (% 86) eta mutilen (% 86,2) ehunekoa antzekoa da. Hala ere, nabarmentzekoa da tarte horretan kokatzen diren 12 urtetik gorako nerabeen ehunekoa txikiagoa dela (% 79,5).

**Etxean beraiekin bizi direnekiko gogobetetze maila, sexuaren eta adinaren arabera. %. Gipuzkoa. 2022**



Oharra: Khi-karratuaren (X²) probaren arabera, aldeak esanguratsuak dira ADINAREN arabera

Batez besteko puntuazioak beste aldagai soziodemografiko batzuen arabera aztertuz gero, aldeak ikusten dira:

**Familia** nuklear bateko kideek lortu dute gai honetan batez besteko puntuaziorik altuena (9,5 puntu), eta guraso bakarreko familietako kideek (9,0)



## EMAITZAK ESPARRUKA

edo beste familia-mota batzuetako kideek (berreratuak, etab.). (8,7) puntuazio txikiagoak lortu dituzte.

**Udalerriaren tamainaren** arabera, tamaina ertaineko udalerrietan bizi direnak pozik daude beraiekin bizi diren pertsonekin (9,5). Udalerri txiki edo handietan bizi direnek puntuazio pixka bat baxuagoa dute (9,4 bi kasuetan).

Bizi diren **eskualdearen** arabera, datuek adierazten dute Bidasoa Beherean bizi direnen batez besteko gogobetetze maila dela txikiena (9,1).

### Etxean beraiekin bizi direnekiko gogobetetze maila, gurutzatze-aldagaien arabera. Batez besteko puntuazioak (0-10). Gipuzkoa. 2022

		Batezbest.	Desb. tipikoa	Moda	Ertaina	Gutxienek.	Gehienez.
<b>ZUREKIN BIZI DIREN PERTSONEKIKO GOGOBETETZEA</b>		<b>9,4</b>	<b>1,2</b>	<b>10,0</b>	<b>10,0</b>	<b>0,0</b>	<b>10,0</b>
<b>SEXUA</b>	Neska	9,4	1,2	10,0	10,0	0,0	10,0
	Mutila	9,5	1,2	10,0	10,0	0,0	10,0
<b>ADINA</b>	8-9 urte	9,7	0,9	10,0	10,0	0,0	10,0
	10-11 urte	9,6	1,0	10,0	10,0	0,0	10,0
	12-14 urte	9,1	1,5	10,0	10,0	0,0	10,0
<b>FAMILIA-MOTA</b>	Familia nuklearra <sup>22</sup>	9,5	1,1	10,0	10,0	0,0	10,0
	Guraso bakarreko familia <sup>23</sup>	9,0	1,5	10,0	10,0	2,0	10,0
	Familia zabala <sup>24</sup>	9,2	1,5	10,0	10,0	0,0	10,0
	Beste mota bateko familia	8,7	1,8	10,0	9,0	0,0	10,0
<b>FAMILIA-ERRENTA ERABILGARRIA</b>	Baxua (< 37.500€)	9,4	1,3	10,0	10,0	0,0	10,0
	Ertaina (37.501€ - 41.500€)	9,5	1,2	10,0	10,0	0,0	10,0
	Altua (> 41.501€)	9,4	1,2	10,0	10,0	0,0	10,0
<b>UDALERRIAREN TAMAINA</b>	Txikia (< 4.000)	9,4	1,3	10,0	10,0	0,0	10,0
	Ertaina (4.001 - 10.000)	9,5	1,1	10,0	10,0	0,0	10,0
	Handia (> 10.000)	9,4	1,3	10,0	10,0	0,0	10,0
<b>ESKUALDEA<sup>25</sup></b>	Urola Kosta	9,5	1,0	10,0	10,0	5,0	10,0
	Urola Erdia eta Garaia	9,5	1,2	10,0	10,0	0,0	10,0
	Tolosaldea	9,4	1,4	10,0	10,0	0,0	10,0
	Oarsoaldea	9,2	1,3	10,0	10,0	1,0	10,0
	Goierri	9,2	1,6	10,0	10,0	0,0	10,0
	Donostia	9,4	1,2	10,0	10,0	0,0	10,0
	Debagoiena	9,5	1,2	10,0	10,0	0,0	10,0
	Debabarrena	9,5	1,0	10,0	10,0	1,0	10,0
	Buruntzaldea	9,4	1,3	10,0	10,0	0,0	10,0
	Bidasoa Beherea	9,1	1,6	10,0	10,0	0,0	10,0

Oharra: Faktore baten ANOVAra F estatistikaren arabera, aldeak esanguratsuak dira ADINAREN, FAMILIA-MOTAREN, UDALERRIAREN TAMAINAREN ETA ESKUALDEAREN arabera.

<sup>22</sup> Seme-alabak dituen familia nuklearra bikote ezkondu batek eta bere seme-alabek osatzen dute (Eustat).

<sup>23</sup> Guraso bakarreko familia aita edo ama bakar batek eta bere seme-alabek osatzen dute (Eustat).

<sup>24</sup> Familia zabala edozein motatako familia-nukleo batek eta berekin bizi diren ahaideek osatzen dute (Eustat).

<sup>25</sup> Eskualde bakoitzaren osiera ezagutzeko, ikus eranskinak.




**EMAITZAK ESPARRUKA**

Beraiekin bizi diren pertsonetikiko gogobetetzeaz gain, familia-bizitzarekin lotutako hainbat alderdi baloratzeko eskatu zaie HNei, hala nola zenbaterainoko segurtasuna sentitzen duten edo gurasoek zenbat entzuten dituzten, besteak beste.

Familia-bizitzaerekin zerikusia duten alderdi hauek baloratzen dira ondoen: etxean hautemandako segurtasuna (% 96,1 oso seguru edo nahiko seguru sentitzen da etxean), senideengandik jasotzen duten laguntza (% 93,8k nahiko argi du arazoren bat izanez gero familiako norbaitek lagunduko diola) eta senideekin igarotzen duten denbora (% 92,9k adierazi du bere familian denek elkarrekin ondo pasatzen dutela).

Aitzitik, hobetzeko tarterik handiena duten alderdiak dira familia-esparruan entzunak izatea eta parte-hartzea. HNen % 13,6k ez du erabat argi ikusten gurasoek entzuten dieten eta esaten dutena kontuan hartzen duten. Gainera, % 6,7k ez du uste bere bizitzari buruzko erabakiak elkarrekin hartzen dituztenik, eta % 14,1ek zalantzak ditu horri dagokionez.

**Familia-bizitzarekin lotutako zenbait alderdirekiko adostasun maila. %.  
Gipuzkoa. 2022**




**Sexuaren** arabera, ez da alde nabarmenik ikusten galdera horiei emandako erantzunetan. Hala eta guztiz ere, neska (% 80,3) gehiagok diote beren bizitzari buruzko erabakiak gurasoekin batera hartzen dituztela mutilek baino (% 78,4).



**EMAITZAK ESPARRUKA**

**Familia-bizitzarekin lotutako zenbait alderdirekiko adostasun maila sexuaren arabera. Nahiko edo guztiz ados %. Gipuzkoa. 2022**



Oharra: Khi-karratuaren (X<sup>2</sup>) probaren arabera, aldeak EZ dira esanguratsuak SEXUAREN arabera


**Adinaren** arabera, oro har, 12-14 urteko nerabeak dira kritikoenak aztertutako gai guztiekin eta, ondorioz, guztietan adostasun txikiagoa erakusten dute. Hala ere, aldeak nabarmenagoak dira zenbait alderdi zehatzetan, hala nola parte-hartzean. Kasu honetan, gai horrekiko adostasun-mailak pixkanaka behera egiten du HNEK adinak aurrera egin ahala.

Era berean, familian denok batera ondo pasatzearekin lotutako desberdintasunak nabarmentzen dira. Hala, 8-11 urteko neska-mutilen puntuazioak % 95 ingurukoak dira, eta nerabeen kasuan, berriz, puntuazio hori % 89,6ra jaisten da.



**EMAITZAK ESPARRUKA**

**Familia-bizitzarekin lotutako zenbait alderdirekiko adostasun maila, adinaren arabera. Nahiko edo guztiz ados %. Gipuzkoa. 2022**



Oharra: Khi-karratuaren (X<sup>2</sup>) probaren arabera, aldeak EZ dira esanguratsuak ADINAREN arabera.

Beste aldagai soziodemografiko batzuen arabera batez besteko puntuazioek zenbait desberdintasun erakusten dituzte:

**Familia**-motaren arabera, familia nuklearretako HNek adostasun-ehuneko handienak lortzen dituzte, eta guraso bakarreko familietan bizi direnek, berriz, txikienak item guztietan, segurtasunari buruzkoan izan ezik. Bi familia-moten arteko aldeak bereziki handiak dira entzuteari eta erabakiak hartzean parte hartzeari buruzko itemetan.

**Eskualdeka**, etxeko segurtasunaren pertzepzioari dagokionez, azpimarratzekoa da Buruntzaldean bizi direnen artean (% 95,1) eta Urola Erdia eta Garaia eskualdeetan (% 87,2) bizi direnen artean dauden aldeak. Azken hauek dira puntuazio txikienak lortzen dituztenak.



**EMAITZAK ESPARRUKA**

**Familia-bizitzarekin lotutako zenbait alderdirekiko adostasun maila, gurutzatze-aldagaien arabera. Nahiko edo guztiz ados %. Gipuzkoa. 2022**

	Seguru sentitzen naiz etxean	Arazo bat badut, familiako norbaitek lagunduko dit	Nire familian ondo pasatzen dugu denok elkarrekin	Nire gurasoek entzuten didate eta kontuan hartzen dute nik esandakoa	Nire gurasoek eta nik elkarrekin hartzen ditugu nire bizitzari buruzko erabakiak
<b>FAMILIA-BIZITZAREKIN LOTUTAKO ZENBAIT ALDERDIREKIKO ADOSTASUN MAILA</b>	<b>% 96,1</b>	<b>% 93,8</b>	<b>% 92,9</b>	<b>% 86,4</b>	<b>% 79,0</b>
<b>FAMILIA-MOTA</b>					
Familia nuklearra <sup>26</sup>	% 97,1	% 93,6	% 93,7	% 88,3	% 78,5
Guraso bakarreko familia <sup>27</sup>	% 96,2	% 88,0	% 84,1	% 77,4	% 66,9
Familia zabala <sup>28</sup>	% 95,1	% 91,6	% 89,3	% 84,1	% 73,9
Beste mota bateko familia	% 97,1	% 93,6	% 93,7	% 88,3	% 78,5
<b>FAMILIA-ERRENTA ERABILGARRIA</b>					
Baxua (< 37.500€)	% 91,9	% 95,8	% 84,8	% 93,1	% 76,4
Ertaina (37.501€ -41.500€)	% 94,1	% 96,5	% 87,3	% 94,8	% 81,3
Altua (> 41.501€)	% 92,7	% 96,2	% 86,9	% 93,5	% 79,2
<b>UDALERRIAREN TAMAINA</b>					
Txikia (< 4.000)	% 93,8	% 96,6	% 87,1	% 93,1	% 78,9
Ertaina (4.001 - 10.000)	% 93,7	% 96,0	% 88,7	% 95,0	% 81,4
Handia (> 10.000)	% 92,5	% 96,1	% 85,5	% 93,6	% 78,3
<b>ESKUALDEA<sup>29</sup></b>					
Urola Kosta	% 91,9	% 97,6	% 85,0	% 94,0	% 84,7
Urola Erdia eta Garaia	% 94,6	% 96,2	% 87,7	% 95,3	% 82,8
Tolosaldea	% 94,1	% 96,1	% 86,7	% 93,2	% 77,5
Oarsoaldea	% 87,2	% 95,9	% 81,6	% 90,4	% 71,5
Goierri	% 93,6	% 96,6	% 88,4	% 92,3	% 76,7
Donostia	% 92,1	% 95,9	% 87,2	% 93,5	% 78,7
Debagoiena	% 94,4	% 96,6	% 88,7	% 94,1	% 80,6
Debabarrena	% 95,1	% 96,8	% 88,7	% 95,1	% 82,3
Buruntzaldea	% 91,2	% 95,7	% 82,7	% 93,8	% 75,6
Bidasoa Beherea	% 87,7	% 94,5	% 81,1	% 88,4	% 70,5


Oharra: Khi-karratuaren (X<sup>2</sup>) probaren arabera, aldeak esanguratsuak dira FAMILIA-MOTAREN, ETA ESKUALDEAREN arabera.

<sup>26</sup> Seme-alabak dituen familia nuklearra bikote ezkondu batek eta bere seme-alabek osatzen dute (Eustat).

<sup>27</sup> Guraso bakarreko familia aita edo ama bakar batek eta bere seme-alabek osatzen dute (Eustat).

<sup>28</sup> Familia zabala edozein motatako familia-nukleo batek eta berekin bizi diren ahaideek osatzen dute (Eustat).

<sup>29</sup> Eskualde bakoitzaren osaera ezagutzeko, ikus eranskinak.



### 3.3. Zer gogobetetze maila dute beren ONGIZATE MATERIALAREKIN?

Ongizate materiala da Gipuzkoako HNEk ondoen baloratutako beste esparruetako bat: 10etik 9,5eko puntuazioa eman dute beraientzat dituzten gauzei dagokienez, eta 9,4koa bizi diren etxeari dagokionez.

Dituzten gauzei dagokienez, ez da alde nabarmenik ikusten **sexuaren** arabera; izan ere, neskek eta mutilek batez besteko puntuazio berbera ematen dute (9,5).


**Adinaren** arabera, 12 urtetik gora gogobetetze mailak behera egiten du, baina talde horren balorazio orokorrak altua izaten jarraitzen du (9,2).

#### ONGIZATE MATERIALA / BIENESTAR MATERIAL



9,4 Batezbesteko gogobetetzea / satisfacción media

**Dituzten gauzekiko gogobetetze maila, sexuaren eta adinaren arabera. Batez besteko puntuazioak (0-10). Gipuzkoa 2022**




Oharra: Faktore baten ANOVAra F estatistikoaren arabera, aldeak esanguratsuak dira ADINAREN arabera.

## EMAITZAK ESPARRUKA

Maiztasunen analisiak adierazten du, era berean, gogobetetze handia (9-10 puntu) dagoela gai horretan (% 86,7), bai nesken artean (% 87,5), bai mutilen artean (% 86,4).

**Adinaren** arabera, berriz ere ikusten da 12 eta 14 urte bitarteko gazteen artean jaitsi egiten dela gogobetetze handia dutenen ehunekoa (% 82,4).

### Dituzten gauzekiko gogobetetze maila, sexuaren eta adinaren arabera. % Gipuzkoa. 2022



Oharra: Khi-karratuaren ( $\chi^2$ ) probaren arabera, aldeak esanguratsuak dira ADINAREN arabera.

Beste aldagai soziodemografiko batzuen arabera batez besteko puntuazioek honako hau erakusten dute:

**Familia-motaren** arabera, familia nuklearretan HNek ematen diote puntuaziorik handiena gai honi (9,5); aldiz, guraso bakarrek (9,1) edo beste familia-mota batzuetan bizi direnek (9,0) lortu dute batez besteko puntuaziorik baxuena.

**Eskualdeka**, puntuazio txikiak Bidasoa Beherean (9,1) eta Goierri (9,2) bizi direnek eman dituzte).

**EMAITZAK ESPARRUKA**

**Dituzten gauzekiko gogobetetze maila, gurutzatze-aldagaien arabera.  
Batez besteko puntuazioak (0-10). Gipuzkoa**

		Batezbest.	Desb. tipikoa	Moda	Ertaina	Gutxienek.	Gehienez.
<b>ZURETZAT DITUZUN GAUZEKIKO GOGOBETETZE MAILA</b>		<b>9,5</b>	<b>1,1</b>	<b>10,0</b>	<b>10,0</b>	<b>0,0</b>	<b>10,0</b>
<b>SEXUA</b>	Neska	9,5	1,0	10,0	10,0	0,0	10,0
	Mutila	9,5	1,1	10,0	10,0	0,0	10,0
<b>ADINA</b>	8-9 urte	9,7	0,9	10,0	10,0	1,0	10,0
	10-11 urte	9,6	1,1	10,0	10,0	0,0	10,0
	12-14 urte	9,2	1,3	10,0	10,0	0,0	10,0
<b>FAMILIA-MOTA</b>	Familia nuklearra <sup>30</sup>	9,5	1,0	10,0	10,0	0,0	10,0
	Guraso bakarreko familiara <sup>31</sup>	9,1	1,5	10,0	10,0	0,0	10,0
	Familia zabala <sup>32</sup>	9,3	1,3	10,0	10,0	0,0	10,0
	Beste mota bateko familia	9,0	1,7	10,0	10,0	0,0	10,0
<b>FAMILIA-ERRENTA ERABILGARRIA</b>	Baxua (< 37.500€)	9,4	1,2	10,0	10,0	0,0	10,0
	Ertaina (37.501€ -41.500€)	9,5	1,1	10,0	10,0	0,0	10,0
	Altua (> 41.501€)	9,5	1,1	10,0	10,0	0,0	10,0
<b>UDALERRIAREN TAMAINA</b>	Txikia (< 4.000)	9,5	1,1	10,0	10,0	0,0	10,0
	Ertaina (4.001 - 10.000)	9,5	1,1	10,0	10,0	0,0	10,0
	Handia (> 10.000)	9,5	1,1	10,0	10,0	0,0	10,0
<b>ESKUALDEA<sup>33</sup></b>	Urola Kosta	9,6	0,8	10,0	10,0	5,0	10,0
	Urola Erdia eta Garaia	9,6	1,0	10,0	10,0	0,0	10,0
	Tolosaldea	9,4	1,2	10,0	10,0	0,0	10,0
	Oarsoaldea	9,4	1,0	10,0	10,0	4,0	10,0
	Goierri	9,2	1,6	10,0	10,0	0,0	10,0
	Donostia	9,5	1,1	10,0	10,0	0,0	10,0
	Debagoiena	9,5	1,1	10,0	10,0	0,0	10,0
	Debarrena	9,6	0,9	10,0	10,0	0,0	10,0
	Buruntzaldea	9,4	1,3	10,0	10,0	0,0	10,0
Bidasoa Beherea	9,1	1,6	10,0	10,0	0,0	10,0	

Oharra: Faktore baten ANOVArako F estatistikaren arabera, aldeak esanguratsuak dira ADINAREN, FAMILIA-MOTAREN ETA ESKUALDEAREN arabera.

Esparru honetan sartzen den bigarren itemari (bizi diren etxea) dagokionez, balorazio orokorra 9,4 puntukoa da, eta ez dago alderik **mutilen eta nesken** artean (9,4). Bestalde, **adinean** aurrera egin ahala, gai horrekiko gogobetetzeak behera egiten du pixkanaka, eta nerabeek puntuazio baxuagoa (9,2) ematen dute, baina hori ere altua.

<sup>30</sup> Seme-alabak dituen familia nuklearra bikote ezkondu batek eta bere seme-alabek osatzen dute (Eustat).


<sup>31</sup> Guraso bakarreko familia aita edo ama bakar batek eta bere seme-alabek osatzen dute (Eustat).

<sup>32</sup> Familia zabala edozein motatako familia-nukleo batek eta berekin bizi diren ahaideek osatzen dute (Eustat)

<sup>33</sup> Eskualde bakoitzaren osiera ezagutzeko, ikus eranskinak.

## EMAITZAK ESPARRUKA

### Bizi diren etxearekiko gogobetetze maila, sexuaren eta adinaren arabera. Batez besteko puntuazioak (0-10). Gipuzkoa 2022




Oharra: Faktore baten ANOVAra F estatistikoaren arabera, aldeak esanguratsuak dira ADINAREN arabera.

Maiztasunen araberako analisiak koherentzia du neurrien azterketarekin. Hala, oro har, bizi diren etxearekin oso pozik (9-10 puntu) dauden HNen ehunekoa % 85,3 da.

**Adinaren** arabera, talde horren pisuak behera egiten du apur bat, pixkanaka, eta 12 eta 14 urte bitarteko HNen artean % 79,6ra iristen da.

**EMAITZAK ESPARRUKA**

**Bizi diren etxearekiko gogobetetze maila, sexuaren eta adinaren arabera. %.**  
**Gipuzkoa. 2022**



Oharra: Khi-karratuaren (X²) probaren arabera, aldeak esanguratsuak dira ADINAREN arabera.

Beste aldagai soziodemografiko batzuen arabera, zenbait alde ikusten dira batez besteko puntuazioetan:

**Familia-motaren** arabera, berriz ere familia nuklear bateko kideek batez besteko puntuazio handiagoa ematen dute bizi diren etxeari dagokionez, guraso bakarreko familietan (8,9) eta beste familia-mota batzuetan (adibidez, berreratutako familiak...) (8,8) bizi direnekin alderatuta.

**Testuinguru ekonomikoak** ere baditu alde batzuk. Horrela, familia-errenta erabilgarri baxuko udalerrietan bizi direnak dira gai horrekin gogobetetze txikiena adierazten dutenak (9,1).

**Udalerraren tamainari** dagokionez, datuek adierazten dute udalerrri handietan bizi direnek balorazio apur bat negatiboagoa egiten dutela (9,4).



## EMAITZAK ESPARRUKA

**Eskualdeen** arabera, Oarsoaldean eta Bidasoa Beherean bizi diren HNak (9,1) dira gai horrekiko gogobetetze gutxien adierazten dutenak; Urola Kostan eta Debabarrenean bizi direnek, berriz, hobeto baloratzen dute gai hori (9,6).

### Bizi diren etxearekiko gogobetetze maila, gurutzatze-aldagaien arabera. Batez besteko puntuazioak (0-10). Gipuzkoa. 2022

		Batezbest.	Desb. tipikoa	Moda	Ertaina	Gutxienek.	Gehienez.
<b>BIZI ZAREN ETXEAREKIKO GOGOBEETZEZ MAILA</b>		<b>9,4</b>	<b>1,2</b>	<b>10,0</b>	<b>10,0</b>	<b>0,0</b>	<b>10,0</b>
<b>SEXUA</b>	Neska	9,4	1,2	10,0	10,0	0,0	10,0
	Mutila	9,4	1,2	10,0	10,0	0,0	10,0
<b>ADINA</b>	8-9 urte	9,7	1,0	10,0	10,0	0,0	10,0
	10-11 urte	9,5	1,1	10,0	10,0	0,0	10,0
	12-14 urte	9,2	1,4	10,0	10,0	0,0	10,0
<b>FAMILIA-MOTA</b>	Familia nuklearra <sup>34</sup>	9,4	1,1	10,0	10,0	0,0	10,0
	Guraso bakarreko familia <sup>35</sup>	8,9	1,6	10,0	9,0	0,0	10,0
	Familia zabala <sup>36</sup>	9,2	1,4	10,0	10,0	0,0	10,0
	Beste mota bateko familia	8,8	1,8	10,0	10,0	0,0	10,0
<b>FAMILIA-ERRENTA ERABILGARRIA</b>	Baxua (< 37.500€)	9,3	1,3	10,0	10,0	0,0	10,0
	Ertaina (37.501€ -41.500€)	9,5	1,2	10,0	10,0	0,0	10,0
	Altua (> 41.501€)	9,4	1,2	10,0	10,0	0,0	10,0
<b>UDALERRIAREN TAMAINA</b>	Txikia (< 4.000)	9,5	1,3	10,0	10,0	0,0	10,0
	Ertaina (4.001 - 10.000)	9,5	1,1	10,0	10,0	0,0	10,0
	Handia (> 10.000)	9,4	1,3	10,0	10,0	0,0	10,0
<b>ESKUALDEA<sup>37</sup></b>	Urola Kosta	9,6	1,1	10,0	10,0	0,0	10,0
	Urola Erdia eta Garaia	9,5	1,2	10,0	10,0	0,0	10,0
	Tolosaldea	9,4	1,3	10,0	10,0	0,0	10,0
	Oarsoaldea	9,1	1,5	10,0	10,0	0,0	10,0
	Goierri	9,2	1,6	10,0	10,0	0,0	10,0
	Donostia	9,4	1,2	10,0	10,0	0,0	10,0
	Debagoiena	9,5	1,1	10,0	10,0	0,0	10,0
	Debabarrena	9,6	1,1	10,0	10,0	0,0	10,0
	Buruntzaldea	9,4	1,3	10,0	10,0	0,0	10,0
	Bidasoa Beherea	9,1	1,5	10,0	10,0	0,0	10,0

Oharra: Khi-karratuaren ( $\chi^2$ ) probaren arabera, aldeak nabarmenak dira SEXUAREN, ADINAREN, FAMILIA-MOTAREN, ERRENTAREN, UDALERRIAREN TAMAINAREN ETA ESKUALDEAREN ARABERA

Aztertutako bi itemez gain, HNei galdetu zaie etxean ongizate materialarekin lotutako hainbat elementu dituzten ala ez, hala nola gailu teknologikoak, Internet, bere logela, konketa edota komuna, ontzi-garbigailua, autoa, bizikleta eta azken urtean oporretara zenbat aldiz joan diren.

<sup>34</sup> Seme-alabak dituen familia nuklearra bikote ezkondu batek eta bere seme-alabek osatzen dute (Eustat).

<sup>35</sup> Guraso bakarreko familia aita edo ama bakar batek eta bere seme-alabek osatzen dute (Eustat).

<sup>36</sup> Familia zabala edozein motatako familia-nukleo batek eta berekin bizi diren ahaideek osatzen dute (Eustat)

<sup>37</sup> Eskualde bakoitzaren osaera ezagutzeko, ikus eranskinak.

**EMAITZAK ESPARRUKA**

Etxeko ekipamenduari dagokionez, datuek adierazten dutenez, 10 eta 14 urte bitarteko HNen % 72,9k **bere gela** du. Espazio propio hori duten nesken ehunekoa mutilena baino handixeagoa da (% 73,8 eta % 71,8) eta, ADINAREN arabera, zaharrenek (12 eta 14 urte bitartekoek) gehiago dute banako gela (% 77,6). Gainera, adierazi behar da familia zabalaren artean ez dela hain ohikoa HNek beren logela izatea (% 66,8).

Etxeen % 89,4k **ontzi-garbigailua** dute. Ehuneko hori jaitsi egiten da guraso bakarreko familien artean (% 79,8) eta familia-errenta erabilgarri apalagoa duten udalerrietan bizi direnen artean (% 83,4). Gainera, batez beste, HNak dituzten Gipuzkoako etxeetan 1,81 **konketa edota komun** daude.

Mugikortasunari dagokionez, datuen arabera, Gipuzkoan HNak dituzten etxeetan batez beste **1,7 auto** daude. Batez besteko hori zertxobait handiagoa da familia nuklearren kasuan (1,8) eta txikiagoa guraso bakarreko familien kasuan (1,1).

**Ekipo eta gailu teknologikoei** dagokienez, datuen arabera, galdetutako hamar pertsonatik bederatzik (% 89,4) ordenagailu edo tablet bat dute etxean eskolak online hartzeko. Batez beste 3,7 ordenagailu dituzte etxean. HNen adina igo ahala, era horretako gailu gehiago dituzte, eta datua % 95,9ra iristen da 12-14 urteko nerabeak bizi diren etxeetan.


Gainera, hamar HNTik seik beren **telefono mugikorra** dute. Espero zitekeen bezala, gailu horien eskuragarritasuna pixkanaka handitzen da adinarekin batera, baina 12 urtetik aurrera orokortu egiten da horien erabilera; 12 eta 14 urte bitarteko nerabeen % 93,9k mugikorra dute erabilera pertsonalerako.

**Internerako** sarbidea HNak bizi diren ia etxe guztietara zabaltzen da (% 97,6), baina guraso bakarreko familien kasuan (% 95,2) zertxobait txikiagoa da.



**EMAITZAK ESPARRUKA**

**Ongizate materialarekin lotutako hainbat elementu etxean badituzten.  
Ehunekoa eta batezbestekoak. Gipuzkoa. 2022**



Aisiari eta kirolari dagokienez, inkestaren emaitzek erakusten dute Gipuzkoako hamar HNTik bederatzik beren **bizikleta** dutela, baina kopuru hori % 79,8ra jaisten da guraso bakarreko etxeetan bizi diren HNen kasuan. Inkestak, halaber, HNei galdetzen die zenbat aldiz joan diren **oporretara** azken urtean. Kasu horretan, emaitzek adierazten dute batez beste familia horiek ia 3 aldiz (2,9) joan direla urtean.

Egindako bidaien kopurua pixka bat gehiago jaitsi da 12 eta 14 urte bitarteko nerabeen artean (2,8), 8 eta 11 urte bitartekoen artean baino (3,1).

Gainera, familia nuklearrak (3,0) familia zabalak (2,6) eta guraso bakarrekoak (2,3) baino gehiagotan joan dira oporretara azken urtean; azken horiek izan dituzte, hain zuzen, era horretako irteera gutxien.

**EMAITZAK ESPARRUKA**

**Ongizate materialarekin lotutako alderdiak.  
Batez besteko puntuazioak (0-10). Gipuzkoa. 2022**

		Ordenagailua edo tableta	Telefono mugikorrek	Internet	Bere logela	Ontzi- garbigailua	Bizikleta	Ekipo eta gailu teknologikoak	Konketak edota komunak	Autoa	Oporrak
<b>ONGIZATE MATERIALAREKIN LOTUTAKO ELEMENTU BATZUK ETXEAN ESKURAGARRI IZATEA</b>		<b>% 89,4</b>	<b>% 60,2</b>	<b>% 97,6</b>	<b>% 72,9</b>	<b>% 87,9</b>	<b>% 91,6</b>	<b>3,7</b>	<b>1,8</b>	<b>1,7</b>	<b>2,9</b>
<b>SEXUA</b>	Neska	% 90,8	% 59,2	% 98,1	% 73,8	% 87,8	% 91,1	3,8	1,8	1,7	3,0
	Mutila	% 88,1	% 60,3	% 97,3	% 71,8	% 88,1	% 92,4	3,6	1,8	1,7	2,8
<b>ADINA</b>	8-9 urte	% 82,2	% 30,8	% 100,0	% 74,0	% 92,4	% 93,4	3,4	1,8	1,7	3,1
	10-11 urte	% 88,4	% 45,4	% 97,6	% 65,4	% 88,4	% 92,3	3,5	1,8	1,7	3,1
	12-14 urte	% 95,9	% 93,9	% 97,6	% 77,6	% 87,5	% 89,7	3,8	1,8	1,7	2,8
<b>FAMILIA-MOTA</b>	Familia nuklearra <sup>38</sup>	% 94,3	% 72,6	% 98,1	% 73,9	% 89,4	% 93,3	3,8	1,8	1,8	3,0
	Curaso bakarreko familia <sup>39</sup>	% 95,1	% 84,2	% 95,2	% 73,5	% 79,8	% 79,6	3,2	1,6	1,1	2,3
	Familia zabala <sup>40</sup>	% 90,3	% 75,5	% 97,7	% 66,8	% 84,3	% 88,0	3,5	1,8	1,7	2,6
	Otro tipo de familia	% 87,2	% 81,5	% 96,5	% 73,5	% 84,9	% 82,4	3,3	1,7	1,6	2,7
<b>FAMILIA- ERRENTA ERABILGARRIA</b>	Baxua (< 37.500€)	% 90,1	% 63,4	% 97,2	% 72,2	% 83,4	% 89,6	3,5	1,6	1,7	2,8
	Ertaina (37.501€ - 41.500€)	% 89,9	% 62,3	% 97,9	% 74,7	% 89,1	% 92,5	3,8	1,9	1,8	2,9
	Altua (> 41.501€)	% 88,4	% 55,8	% 97,9	% 72,1	% 91,0	% 92,5	3,9	1,9	1,7	3,0
<b>UDALERRIAREN TAMAINA</b>	Txikia (< 4.000)	% 86,1	% 56,6	% 97,7	% 72,5	% 88,1	% 93,8	3,6	2,0	2,0	2,7
	Ertaina (4.001 - 10.000)	% 90,4	% 56,7	% 97,5	% 73,0	% 86,8	% 92,1	3,6	1,8	1,8	2,8
	Handia (> 10.000)	% 89,8	% 62,0	% 97,7	% 73,0	% 88,2	% 91,0	3,8	1,8	1,7	3,0
<b>ESKUALDEA<sup>41</sup></b>	Urola Kosta	% 88,6	% 47,6	% 97,7	% 70,5	% 87,2	% 93,2	3,7	2,1	1,8	2,7
	Urola Erdia eta Garaia	% 89,2	% 59,9	% 97,3	% 72,7	% 87,6	% 92,2	3,4	1,8	1,8	2,6
	Tolosaldea	% 88,1	% 59,1	% 96,7	% 69,6	% 85,9	% 91,9	3,4	1,8	1,9	2,7
	Oarsoaldea	% 95,8	% 79,6	% 97,8	% 76,8	% 83,8	% 82,0	3,8	1,4	1,6	2,7
	Goierri	% 85,8	% 67,4	% 98,6	% 76,6	% 90,8	% 93,3	3,9	2,0	2,0	2,7
	Donostia	% 89,8	% 57,1	% 98,1	% 71,2	% 91,4	% 91,6	4,0	1,9	1,6	3,2
	Debagoiena	% 89,2	% 61,3	% 97,6	% 77,4	% 88,5	% 92,2	3,8	1,8	1,7	3,2
	Debabarrena	% 94,2	% 63,4	% 97,7	% 73,2	% 85,7	% 91,4	3,9	1,8	1,8	3,0
	Buruntzaldea	% 87,1	% 55,2	% 97,8	% 72,6	% 86,8	% 91,4	3,7	1,7	1,7	3,0
	Bidasoa Beherea	% 91,8	% 87,0	% 97,5	% 72,0	% 84,1	% 92,0	3,6	1,7	1,6	2,5

Oharra: Khi-karratuaren (X<sup>2</sup>) probaren arabera, aldeak nabarmenak dira ADINAREN, FAMILIA-MOTAREN, ERRENTAREN, UDALERRIAREN TAMAINAREN ETA ESKUALDEAREN ARABERA

<sup>38</sup> Seme-alabak dituen familia nuklearra bikote ezkondu batek eta bere seme-alabek osatzen dute (Eustat).

<sup>39</sup> Curaso bakarreko familia aita edo ama bakar batek eta bere seme-alabek osatzen dute (Eustat).

<sup>40</sup> Familia zabala edozein motatako familia-nukleo batek eta berekin bizi diren ahaideek osatzen dute (Eustat)

<sup>41</sup> Eskualde bakoitzaren osiera ezagutzeko, ikus eranskinak.

## EMAITZAK ESPARRUKA

Nahiz eta azterlan horrekin HNak dituzten etxeetako pobrezia-arriskua berariaz aztertu nahi izan ez den, ongizate materialari buruzko azterketa osatzeko, izan ditzaketen murrizketei buruzko azterketa egin da. Hala, % 1,5 inguruk adierazi du ez duela egoera onean dagoen arropa eta oinetakorik, eta horrek esan nahi du Gipuzkoako 8 eta 14 urte bitarteko 760 haur eta nerabe inguru egon daitezkeela egoera horretan.

Gainera, % 3,4k (1.700 HN) aitortu du bere ikastetxerako behar dituen materialak ez dituela, % 4,6k (2.300 HN) adierazi du ez duela kirola egiteko edo bere zaletasunak gauzatzeko behar duen materiala, eta % 4,9k (2.400 HN) dio ez duela etxeko lanak egiteko eta ikasteko idazmahairik <sup>42</sup>.

### Pobrezia-arriskuarekin lotutako adierazleak



Oporrak

\* 2,9

\* Batezbestekoa



Ikasteko idazmahairik gabe

% 4,9



Kirola egiteko materialik gabe

% 4,6



Eskolarako materialik gabe

% 3,4


Bestalde, HNei beren familiak duen diruaz zenbatean behin kezkatzen diren galdetzen zaienean, % 20,5ek onartzen du oso maiz kezkatzen dela (askotan edo beti). Neskek (% 21) eta 12 eta 14 urte bitarteko nerabeek (% 21,7) gehiagotan agertzen dute kezka gai horren inguruan.

<sup>42</sup> Biztanleen Udal Estatistikaren arabera, Gipuzkoako 8-14 urteko HNen unibertsoan oinarrituta egindako zenbatespenak (Eustat, 2021)



**EMAITZAK ESPARRUKA**

**Familiak duen diruaz zein maiztasunekin arduratzen diren sexuaren eta adinaren arabera. % Gipuzkoa. 2022**




Oharra: Khi-karratuaren (X<sup>2</sup>) probaren arabera, aldeak esanguratsuak dira SEXUAREN eta ADINAREN arabera.

Dirudienez, HNen **familia-motak** ere eragina du familiaren diru-sarrerekiko kezkan. Hala, guraso bakarreko familietako HNak dira gai horretaz gehien arduratzen direnak (% 29,7) familia nuklearretako HNekin alderatuta, azken horien kezka ez baita hain errepikakorra (% 18,8).

Era berean, **testuinguru ekonomiko** apalagoa duen udalerrri batean bizi direnen artean familiaren diruari buruzko kezka ohikoagoa da beste testuinguru onuragarriago batzuetan baino (% 23,6).

**Eskualdeka**, azpimarratzekoa da Oarsoaldean bizi direnen artean alderdi ekonomiko horren inguruko kezka (% 31,3). Aldiz, kezka hori ez da hain ohikoa Donostian (% 17,8) edo Debagoiengan (% 18,2) bizi direnen artean.



## EMAITZAK ESPARRUKA

### Familiak duen diruaz zein maiztasunekin arduratzen diren, gurutzatze-aldagien arabera. %. Gipuzkoa. 2022

		Inoiz ez edo batzuetan	Askotan edo beti
<b>ZEIN MAIZTASUNEKIN KEZKATZEN ZAITUEN ZURE FAMILIAK DUEN DIRUAK</b>		<b>% 79,5</b>	<b>% 20,5</b>
<b>FAMILIA-MOTA</b>	Familia nuklearra <sup>43</sup>	% 81,2	% 18,8
	Guraso bakarreko familia <sup>44</sup>	% 70,3	% 29,7
	Familia zabala <sup>45</sup>	% 73,1	% 26,9
	Beste mota bateko familia	% 73,3	% 26,7
<b>FAMILIA-ERRENTA ERABILGARRIA</b>	Baxua (< 37.500€)	% 76,4	% 23,6
	Ertaina (37.501€ -41.500€)	% 80,9	% 19,1
	Altua (> 41.501€)	% 81,0	% 19,0
<b>UDALERRIAREN TAMAINA</b>	Txikia (< 4.000)	% 80,0	% 20,0
	Ertaina (4.001 - 10.000)	% 80,4	% 19,6
	Handia (> 10.000)	% 79,2	% 20,8
<b>ESKUALDEA<sup>46</sup></b>	Urola Kosta	% 78,6	% 21,4
	Urola Erdia eta Garaia	% 79,4	% 20,6
	Tolosaldea	% 77,7	% 22,3
	Oarsoaldea	% 68,7	% 31,3
	Goierri	% 78,9	% 21,1
	Donostia	% 82,2	% 17,8
	Debagoiena	% 81,8	% 18,2
	Debarrena	% 78,9	% 21,1
	Buruntzaldea	% 78,5	% 21,5
Bidasoa Beherea	% 80,1	% 19,9	

Oharra: Khi-karratuaren (X<sup>2</sup>) probaren arabera, aldeak esanguratsuak dira FAMILIA-MOTA, ERRENTA ETA ESKUALDEAREN arabera.

<sup>43</sup> Seme-alabak dituen familia nuklearra bikote ezkondu batek eta bere seme-alabek osatzen dute (Eustat).

<sup>44</sup> Guraso bakarreko familia aita edo ama bakar batek eta bere seme-alabek osatzen dute (Eustat).

<sup>45</sup> Familia zabala edozein motatako familia-nukleo batek eta berekin bizi diren ahaideek osatzen dute (Eustat)

<sup>46</sup> Eskualde bakoitzaren osaera ezagutzeko, ikus eranskinak.

### 3.4. Zer gogobetetze maila dute beren OSASUNAREKIN?

Gipuzkoako HNek osasunari eta gorputzari dagokienez duten gogobetetzea 8,7 puntukoa da, batez beste, 10etik.

Batez besteko gogobetetzea bi itemetatik abiatuta kalkulatzen da. Horietatik, bere osasuna da ondoen baloratutako alderdia (9,2), eta beren gorputzarekiko gogobetetzea da, aldiz, batez besteko puntuazio txikiena lortzen duen alderdia (8,3 puntu).

#### OSASUNA / SALUD



Osasunari dagokionez, aipatzekoa da **neskek eta mutilek** antzeko puntuazioa ematen diotela gai horrekiko gogobetetzeari (9,2 eta 9,3 puntu, hurrenez hurren). Hala ere, **adinaren** arabera, 12 eta 14 urte bitarteko nerabeek (8,9) gogobetetze maila txikiagoa dute alderdi horrekin 10 eta 11 urteko (9,4) eta 8 eta 9 urteko (9,5) neska-mutilek baino.

Osasunarekiko gogobetetze maila, sexuaren eta adinaren arabera. Batez besteko puntuazioak (0-10). Gipuzkoa. 2022




Oharra: Faktore baten ANOVAra F estatistikoaren arabera, aldeak esanguratsuak dira ADINAREN arabera.



### EMAITZAK ESPARRUKA

Maiztasunak aztertuz gero, batez bestekoen analisiaren oso antzeko ondorioak ikus daitezke. Horrela, galdetutako haur eta nerabeen % 83,9 oso pozik daude beren osasunarekin (9 edo 10 puntuko puntuazioa ematen dute). Gogobetetze-tarte horretan ez dago ia alderik emakumeen eta gizonen pisuan (% 84 eta % 84,2). Hala ere, osasunarekin oso pozik daudenen garrantzia jaitsi egiten da batez ere **12 eta 14 urte bitartekoen** artean, % 76,5ean kokatuz.

**Osasunarekiko gogobetetze maila, sexuaren eta adinaren arabera. %.**  
Gipuzkoa. 2022



Oharra: Khi-karratuaren ( $\chi^2$ ) probaren arabera, aldeak esanguratsuak dira ADINAREN arabera.

Beste aldagai soziodemografiko batzuen arabera batez besteko puntuazioek honako hau erakusten dute:

**Familia-motaren** arabera, familia nuklearretako (9,2) eta zabaletako (9,0) HNak dira beren osasunarekiko gogobetetze maila handiena dutenak; aldiz, guraso bakarreko familia dutenek (8,7) eta beste familia-mota batzuetakoek (8,8) puntuazio txikiagoa dute. **Eskualdearen** arabera, Bidasoa Beherean bizi diren HNak (8,8) dira osasunarekiko gogobetetze txikiena dutenak, eta Urola Kostan eta Donostian bizi direnak dira puntu gehien ematen dutenak (9,4).

**EMAITZAK ESPARRUKA**

**Osasunarekiko gogobetetze maila, gurutzatze-aldagaien arabera. Batez besteko puntuazioa (0-10). Gipuzkoa. 2022**

		Batezbest.	Desb. tipikoa	Moda	Ertaina	Gutxieneak.	Gehienez.
<b>ZURES OSASUNAREKIKO GOGOBETETZE MAILA</b>		<b>9,2</b>	<b>1,5</b>	<b>10,0</b>	<b>10,0</b>	<b>0,0</b>	<b>10,0</b>
<b>SEXUA</b>	Neska	9,2	1,5	10,0	10,0	0,0	10,0
	Mutila	9,3	1,5	10,0	10,0	0,0	10,0
<b>ADINA</b>	8-9 urte	9,5	1,4	10,0	10,0	0,0	10,0
	10-11 urte	9,4	1,3	10,0	10,0	0,0	10,0
	12-14 urte	8,9	1,6	10,0	10,0	0,0	10,0
<b>FAMILIA-MOTA</b>	Familia nuklearra <sup>47</sup>	9,2	1,4	10,0	10,0	0,0	10,0
	Curaso bakarreko familia <sup>48</sup>	8,7	1,9	10,0	9,0	0,0	10,0
	Familia zabala <sup>49</sup>	9,0	1,7	10,0	10,0	0,0	10,0
	Beste mota bateko familia	8,8	1,9	10,0	9,0	0,0	10,0
<b>FAMILIA-ERRENTA ERABILGARRIA</b>	Ertaina (37.501€ -41.500€)	9,1	1,5	10,0	10,0	0,0	10,0
	Altua (> 41.501€)	9,3	1,5	10,0	10,0	0,0	10,0
	Txikia (< 4.000)	9,3	1,5	10,0	10,0	0,0	10,0
<b>UDALERRIAREN TAMAINA</b>	Ertaina (4.001 - 10.000)	9,2	1,6	10,0	10,0	0,0	10,0
	Handia (> 10.000)	9,3	1,4	10,0	10,0	0,0	10,0
	Ertaina (37.501€ -41.500€)	9,2	1,5	10,0	10,0	0,0	10,0
<b>ESKUALDEA<sup>50</sup></b>	Urola Kosta	9,4	1,3	10,0	10,0	0,0	10,0
	Urola Erdia eta Garaia	9,2	1,6	10,0	10,0	0,0	10,0
	Tolosaldea	9,1	1,7	10,0	10,0	0,0	10,0
	Oarsoaldea	9,0	1,7	10,0	10,0	0,0	10,0
	Goierri	9,1	1,8	10,0	10,0	0,0	10,0
	Donostia	9,4	1,3	10,0	10,0	0,0	10,0
	Debagoiena	9,3	1,3	10,0	10,0	0,0	10,0
	Debabarrena	9,3	1,3	10,0	10,0	0,0	10,0
	Buruntzaldea	9,2	1,6	10,0	10,0	0,0	10,0
	Bidasoa Beherea	8,8	1,9	10,0	9,0	0,0	10,0

Oharra: Khi-karratuaren (X<sup>2</sup>) probaren arabera, aldeak nabarmenak dira SEXUAREN, ADINAREN, FAMILIA-MOTAREN ETA ESKUALDEAREN ARABERA

Lehen esan bezala, esparru honetako bigarren itema lotuta dago HNek beren gorputzarekin duten gogobetetzearekin. Oro har, gai horrekiko batez besteko gogobetetzea 8,3 puntukoa da 10etik. Puntuazio hori, altua bada ere, esparru honetan aztertutako bost itemetatik txikiena da.

Alde nabarmenak daude **sexuaren** arabera, eta nesken batez besteko gogobetetzea mutilena baino askoz ere txikiagoa da (7,8 eta 8,7, hurrenez hurren). Badirudi **adinak** ere eragina duela gai honetan. Horrela, norberaren irudiarekiko gogobetetzeak behera egiten du bereziki 12 urtetik aurrera (7,8).

<sup>47</sup> Seme-alabak dituen familia nuklearra bikote ezkondu batek eta bere seme-alabek osatzen dute (Eustat).


<sup>48</sup> Curaso bakarreko familia aita edo ama bakar batek eta bere seme-alabek osatzen dute (Eustat).

<sup>49</sup> Familia zabala edozein motatako familia-nukleo batek eta berekin bizi diren ahaideek osatzen dute (Eustat).

<sup>50</sup> Eskualde bakoitzaren osaera ezagutzeko, ikus eranskinak.


**EMAITZAK ESPARRUKA**

**Norbere gorputzarekiko gogobetetze maila, sexuaren eta adinaren arabera.  
Batez besteko puntuazioak (0-10). Gipuzkoa. 2022**




Oharra: Faktore baten ANOVAra F estatistikoaren arabera, aldeak esanguratsuak dira SEXUAREN eta ADINAREN arabera.

HNeen % 77,4k gogobetetze-maila oso altua du (9-10 puntu) bere gorputzarekiko. Gogobetetze-tarte horretan dauden **nesken** ehuneko **mutilena** baino askoz ere txikiagoa da (% 72,9 eta % 82,4, hurrenez hurren). **adinaren** arabera ere pixkanaka behera egiten ari da gogobetetze-tarterik handienean daudenen ehuneko: 8 eta 9 urte bitartekoen % 99,3, 10 eta 11 urte bitartekoen % 81,1 eta 12 eta 14 urte bitartekoen % 56,7.



**EMAITZAK ESPARRUKA**

**Norbere gorputzarekiko gogobetetze maila, sexuaren eta adinaren arabera.  
%. Gipuzkoa. 2022**



Oharra: Khi-karratuaren (X²) probaren arabera, aldeak esanguratsuak dira SEXUAREN eta ADINAREN arabera.

Oraingo honetan, beste aldagai soziodemografiko batzuen araberako batez besteko puntuazioen azterketak erakusten du familien **testuinguru ekonomikoak** eragina duela HNEk beren gorputzarekin duten gogobetetzean. Horrela, errenta baxuagoak edo apalagoak dituzten udalerrietan bizi direnek alderdi horrekin (8,1) gogobetetze maila txikiagoa dute testuinguru ekonomiko ertainetan (8,3) edo altuetan (8,4) bizi direnek baino.

**EMAITZAK ESPARRUKA**

**Norbere gorputzarekiko gogobetetze maila, gurutzatze-aldagaien arabera.  
Batez besteko puntuazioak (0-10). Gipuzkoa. 2022**

		Batezbest.	Desb. tipikoa	Moda	Ertaina	Gutxienek.	Gehienez.
<b>ZEURE GORPUTZAREKIKO GOGOBETETZE MAILA</b>		<b>8,3</b>	<b>2,4</b>	<b>10,0</b>	<b>9,0</b>	<b>0,0</b>	<b>10,0</b>
<b>SEXUA</b>	Neska	7,8	2,7	10,0	9,0	0,0	10,0
	Mutila	8,7	1,9	10,0	9,0	0,0	10,0
<b>ADINA</b>	8-9 urte	9,2	1,5	10,0	10,0	3,0	10,0
	10-11 urte	9,0	1,9	10,0	10,0	0,0	10,0
	12-14 urte	7,8	2,6	10,0	9,0	0,0	10,0
<b>FAMILIA-MOTA</b>	Familia nuklearra <sup>51</sup>	8,4	2,2	10,0	9,0	0,0	10,0
	Guraso bakarreko familia <sup>52</sup>	7,6	2,9	10,0	9,0	0,0	10,0
	Familia zabala <sup>53</sup>	8,3	2,4	10,0	9,0	0,0	10,0
	Beste mota bateko familia	7,5	3,0	10,0	9,0	0,0	10,0
<b>FAMILIA-ERRENTA ERABILGARRIA</b>	Baxua (< 37.500€)	8,1	2,5	10,0	9,0	0,0	10,0
	Ertaina (37.501€ - 41.500€)	8,3	2,4	10,0	9,0	0,0	10,0
	Altua (> 41.501€)	8,4	2,3	10,0	9,0	0,0	10,0
<b>UDALERRIAREN TAMAINA</b>	Txikia (< 4.000)	8,4	2,3	10,0	9,0	0,0	10,0
	Ertaina (4.001 - 10.000)	8,0	2,5	10,0	9,0	0,0	10,0
	Handia (> 10.000)	8,3	2,4	10,0	9,0	0,0	10,0
<b>ESKUALDEA<sup>54</sup></b>	Urola Kosta	8,4	2,2	10,0	9,0	0,0	10,0
	Urola Erdia eta Garaia	8,3	2,4	10,0	9,0	0,0	10,0
	Tolosaldea	8,3	2,4	10,0	9,0	0,0	10,0
	Oarsoaldea	8,0	2,6	10,0	9,0	0,0	10,0
	Goierri	8,3	2,3	10,0	9,0	0,0	10,0
	Donostia	8,4	2,3	10,0	9,0	0,0	10,0
	Debagoiena	8,1	2,5	10,0	9,0	0,0	10,0
	Debarrena	8,3	2,3	10,0	9,0	0,0	10,0
	Buruntzaldea	8,3	2,4	10,0	9,0	0,0	10,0
Bidasoa Beherea	7,7	2,6	10,0	9,0	0,0	10,0	

Oharra: Khi-karratuaren (X<sup>2</sup>) probaren arabera, aldeak nabarmenak dira SEXUAREN, ADINAREN, FAMILIA-MOTAREN, ERRENTAREN ETA ESKUALDEAREN ARABERA.

Bestalde, HNei eskatu zaie zerrenda batean adieraz ditzatela azken bi asteetan nola sentitu diren hobekien deskribatzen duten sentimenduak eta emozioak. Horrela, afektu positibo eta negatiboen nagusitasuna aztertu da, kolektibo horrek ongizate emozionalari buruz duen ikuspegi orokorra osatu ahal izateko.

<sup>51</sup> Seme-alabak dituen familia nuklearra bikote ezkondu batek eta bere seme-alabek osatzen dute (Eustat).

<sup>52</sup> Guraso bakarreko familia aita edo ama bakar batek eta bere seme-alabek osatzen dute (Eustat).


<sup>53</sup> Familia zabala edozein motatako familia-nukleo batek eta berekin bizi diren ahaideek osatzen dute (Eustat)

<sup>54</sup> Eskualde bakoitzaren osaera ezagutzeko, ikus eranskinak.

**EMAITZAK ESPARRUKA**

Azken bi asteetan izandako afektu positiboek dagokienez, HNak sarritan (beti edo ia beti) zorioneko sentitzen dira (% 71,6), energiaren beteta (% 68,4), gogoz bizi (% 66,6) eta zoriontsu (% 65,7).

**Afektu positiboaren nagusitasuna azken bi asteetan. % Gipuzkoa. 2022**



**Sexuaren** arabera, mutilek neskek baino gehiagotan (beti edo ia beti) izaten dituzte afektu positibo, baina alde handiagoak daude energiari (% 73,5 eta % 63,7, hurrenez hurren), gogo bizitasunari (% 70,7 eta % 62,8) edo erlaxazioari (% 62,6 eta % 54,7, hurrenez hurren) dagokienez.

Bestalde, emaitzek berriz ere erakusten dute adinean aurrera egin ahala afektu positiboaren maiztasunak behera egiten duela. 8 eta 9 urte bitarteko hamar haurretatik ia zortzi zoriontsu sentitu dira beti edo ia beti azken bi asteetan (% 79,1), eta ehuneko % 50,4ra jaisten da 12 eta 14 urte bitarteko nerabeen artean. Energia eta gogo bizia dira nerabezaroan atzera gehien egiten duten afektuak: gutxi gorabehera % 25ek sentitzen ditu beti edo ia beti sentimendu horiek, 10 eta 11 urteko haurrekin alderatuta.

**EMAITZAK ESPARRUKA**

**Afektu positiboen nagusitasuna azken bi asteetan sexuaren eta adinaren arabera. % beti edo ia beti. Gipuzkoa. 2022**

	<b>Guztira</b>	Neska	Mutila	8-9 urte	10 - 11 urte	12 - 14 urte
<b>Zorioneko?</b>	<b>% 71,6</b>	% 70,2	% 73,5	-	% 70,8	% 49,6
<b>Energiaz beteta?</b>	<b>% 68,4</b>	% 63,7	% 73,5	-	% 68,4	% 43,0
<b>Gogoz bizi?</b>	<b>% 66,6</b>	% 62,8	% 70,7	-	% 66,1	% 40,4
<b>Zoriontsu?</b>	<b>% 65,7</b>	% 63,7	% 68,1	% 79,1	% 72,2	% 50,4
<b>Lasai?</b>	<b>% 61,7</b>	% 58,2	% 65,4	-	% 53,9	% 36,3
<b>Erlaxatuta?</b>	<b>% 58,7</b>	% 54,7	% 62,6	-	% 48,0	% 32,8

Oharra: Khi-karratuaren (X<sup>2</sup>) probaren arabera, aldeak esanguratsuak dira SEXUAREN eta ADINAREN arabera.

**Dirudienez, familia-motak** alde batzuk markatzen ditu afektu positiboan nagusitasunean. Oro har, familia nuklear eta zabaletako kideek sarriago izaten dituzte afektu horiek. Hala, familia nuklearretako HNen % 88,8 eta familia zabal bateko kide direnen % 86,5 maiztasun handiarekin (beti edo ia beti) sentitu dira pozik, guraso bakarreko familia batekoak direnen % 78,8ren aurrean. Bestalde, beste familia-eredu batzuetan (berreratutako familiak, etab.) gutxiagotan sentitzen dute lasaitasun-sentsazioa (% 64,7), erlaxazioa (% 58,4) eta berotasuna (% 65,8). Gainera, guraso bakarreko familietan gutxiagotan sentitzen dute aberastasun-sentsazioa (% 71,3).

**Udalerriaren tamainaren** arabera, udalerrri handietan bizi direnek gutxiagotan izaten dituzte aztertutako afektu positiboak, udalerrri txikietan edo ertainetan bizi direnek baino. Aldeak zertxobait handiagoak dira erlaxazio-sentimenduaz galdetzen zaienean; % 73,1ek dio beti edo ia beti horrela sentitzen dela, udalerrri ertainetan bizi direnen (% 79,1ek) eta udalerrri txikietan bizi direnen (% 77,8k) aldean.

**Testuinguru ekonomikoak** ere desberdintasunak sortzen dituela dirudi eta, oro har, testuinguru ekonomiko apalagoetan bizi direnek neurri txikiagoan bizitzen dituzte afektu positibo horiek, erdi-mailako eta goi-mailako testuinguru ekonomikoetan bizi direnek baino.

**Eskualdearen** arabera, Debarrenean eta Urola Erdian eta Garaian bizi direnek gehiagotan izaten dituzte afektu positiboak, eta Bidasoa Beherean eta Oarsoaldean bizi direnek, berriz, gutxiagotan.

**EMAITZAK ESPARRUKA**

**Afektu positiboaren nagusitasuna azken bi asteetan, gurutzatze-aldagaien arabera. % beti edo ia beti. Gipuzkoa. 2022**

		Zoriona	Lasaitasuna	Energia	Aberastasuna	Erlaxazioa	Gogo bizia
<b>AFEKTU POSITIBOEN NAGUSITASUNA</b>		<b>% 89,0</b>	<b>% 81,0</b>	<b>% 83,6</b>	<b>% 87,0</b>	<b>% 74,9</b>	<b>% 82,0</b>
<b>FAMILIA-MOTA</b>	Familia nuklearra <sup>55</sup>	% 88,8	% 72,2	% 76,5	% 82,6	% 62,2	% 74,3
	Guraso bakarreko familia <sup>56</sup>	% 78,8	% 71,4	% 72,2	% 71,3	% 66,3	% 66,6
	Familia zabala <sup>57</sup>	% 86,5	% 72,8	% 76,5	% 78,4	% 64,5	% 73,2
	Beste mota bateko familia	% 79,5	% 64,7	% 68,1	% 73,7	% 58,4	% 65,8
<b>FAMILIA-ERRENTA ERABILGARRIA</b>	Baxua (< 37.500€)	% 87,8	% 79,5	% 82,5	% 85,4	% 73,4	% 80,3
	Ertaina (37.501€ - 41.500€)	% 89,2	% 83,2	% 85,2	% 88,5	% 77,3	% 83,2
	Altua (> 41.501€)	% 89,7	% 80,4	% 83,2	% 87,3	% 74,1	% 82,5
<b>UDALERRIAREN TAMAINA</b>	Txikia (< 4.000)	% 89,6	% 83,3	% 84,1	% 88,6	% 77,8	% 82,9
	Ertaina (4.001 - 10.000)	% 89,0	% 83,0	% 85,9	% 88,8	% 79,1	% 84,3
	Handia (> 10.000)	% 88,8	% 79,9	% 82,8	% 86,3	% 73,1	% 81,2
<b>ESKUALDEA<sup>58</sup></b>	Urola Kosta	% 89,7	% 84,0	% 84,1	% 87,8	% 79,6	% 84,1
	Urola Erdia eta Garaia	% 89,7	% 86,4	% 87,1	% 90,4	% 80,8	% 85,4
	Tolosaldea	% 87,1	% 80,1	% 82,0	% 86,5	% 74,0	% 80,4
	Oarsoaldea	% 86,5	% 70,0	% 77,5	% 77,2	% 63,2	% 72,0
	Goierri	% 87,4	% 79,5	% 81,9	% 86,3	% 74,5	% 80,4
	Donostia	% 89,9	% 78,5	% 82,2	% 86,6	% 71,4	% 81,4
	Debagoiena	% 89,3	% 82,2	% 83,6	% 86,4	% 76,2	% 82,7
	Debabarrena	91,9%	84,1%	88,7%	90,6%	80,4%	85,7%
	Buruntzaldea	88,3%	80,9%	83,6%	87,6%	73,4%	82,6%
Bidasoa Beherea	82,4%	64,7%	70,4%	72,0%	60,1%	64,3%	

Oharra: Khi-karratuaren (X<sup>2</sup>) probaren arabera, aldeak esanguratsuak dira FAMILIA-MOTAREN, ERRENTAREN eta ESKUALDEAREN arabera.

Azken bi asteetan sentitutako afektu negatiboak dagokienez, inkestaren arabera, HNen erdia inguru oso maiz sentitu da estresatuta (% 52,2); asperdura sentitu du (% 48,6) edo kezkatuta egon da (% 48,3). % 17,3 inguruk aitortu du maiz sentitu dela triste.

<sup>55</sup> Seme-alabak dituen familia nuklearra bikote ezkondu batek eta bere seme-alabek osatzen dute (Eustat).

<sup>56</sup> Curaso bakarreko familia aita edo ama bakar batek eta bere seme-alabek osatzen dute (Eustat).


<sup>57</sup> Familia zabala edozein motatako familia-nukleo batek eta berekin bizi diren ahaideek osatzen dute (Eustat)

<sup>58</sup> Eskualde bakoitzaren osaera ezagutzeko, ikus eranskinak.



**EMAITZAK ESPARRUKA**

**Afektu negatiboen nagusitasuna azken bi asteetan. %. Gipuzkoa. 2022**



Halaber, inkestak erakusten du indarkeria-mota horiek neurri handiagoan identifikatzen dituztela haurrek nerabeek baino. **Adinaren** arabera, 8 eta 9 urteko haurren % 21,5ek aitortu du behin baino gehiagotan baztertua izan dela, nerabeen % 10,2ren aldean, eta 8 eta 9 urteko haurren % 32k dio indarkeria fisikoaren biktima izan dela, nerabeen % 11,1en aldean. Hitzezko indarkeriari dagokionez, 8 eta 9 urteko hiru haurretik bat behin baino gehiagotan iraindu dute azken hilabetean (% 33,9), eta 12 urtetik gorako nerabeen artean, berriz, % 19,7.



**BESTE ALDERDI BATZUK**


**Azken hilabetean bazterkeria, irainak eta indarkeria fisikoa zenbat aldiz jasan duten sexuaren arabera. % Bi aldiz edo gehiagotan. Gipuzkoa. 2022**



Oharra: Khi-karratuaren (X<sup>2</sup>) probaren arabera, aldeak esanguratsuak dira SEXUAREN arabera.




**Azken hilabetean bazterkeria, irainak eta indarkeria fisikoa zenbat aldiz jasan duten adinaren arabera. % Bi aldiz edo gehiagotan. Gipuzkoa. 2022**



Oharra: Khi-karratuaren (X<sup>2</sup>) probaren arabera, aldeak esanguratsuak dira ADINAREN arabera.

**Familia-motaren** arabera, datuek adierazten dute indarkeria-adierazpenen intzidentzia txikiagoa dela familia nuklear batean bizi direnen artean, eta beste familia-mota batzuetakoak direnek (berrosatuak...), berriz, gehiago pairatzen dituztela.



## BESTE ALDERDI BATZUK

Bizi diren udalerriko **familia-errentaren** arabera, nabarmendu behar da ingurune ekonomiko hobegoetan bizi direnek neurri handiagoan jasaten dituztela indarkeria-adierazpen horiek.

Gainera, bizi diren **udalerrriaren tamainari** dagokionez, inkestak erakusten du tamaina ertaineko udalerrietan bizi direnek jasaten dutela, neurri handiagoan, indarkeria hori.

### Azken hilabeteen bazterkeria, irainak eta indarkeria fisikoa zenbat aldiz jasan duten, gurutzatze-aldagaien arabera. % Noizbait. Gipuzkoa. 2022

		Eraso fisikoa	Hitzezko erasoa	Baztertua edo bakartzea
<b>AZKEN HILABETEAN BITAN BAINO GEHIAGOTAN JASAN DUTEN INDARKERIA-MOTAREN BAT</b>		<b>% 21,1</b>	<b>% 26,8</b>	<b>% 15,1</b>
<b>FAMILIA-MOTA</b>	Familia nuklearra <sup>137</sup>	% 13,7	% 21,2	% 10,5
	Guraso bakarreko familia <sup>138</sup>	% 17,2	% 29,9	% 15,2
	Familia zabala <sup>139</sup>	% 20,8	% 26,8	% 15,9
	Beste mota bateko familia	% 22,5	% 30,9	% 17,9
<b>FAMILIA-ERRENTA ERABILGARRIA</b>	Baxua (< 37.500€)	% 19,6	% 27,4	% 14,1
	Ertaina (37.501€ -41.500€)	% 20,5	% 23,4	% 14,2
	Altua (> 41.501€)	% 22,9	% 28,9	% 16,7
<b>UDALERRIAREN TAMAINA</b>	Txikia (< 4.000)	% 21,4	% 24,5	% 14,8
	Ertaina (4.001 - 10.000)	% 24,0	% 30,8	% 18,9
	Handia (> 10.000)	% 20,2	% 25,9	% 14,1
<b>ESKUALDEA<sup>140</sup></b>	Urola Kosta	% 27,5	% 30,9	% 17,7
	Urola Erdia eta Garaia	% 20,1	% 23,3	% 15,1
	Tolosaldea	% 18,3	% 22,7	% 13,8
	Oarsoaldea	% 14,6	% 32,8	% 15,6
	Goierri	% 19,7	% 23,2	% 14,3
	Donostia	% 20,3	% 26,4	% 13,1
	Debagoiena	% 23,5	% 31,3	% 17,2
	Debarrena	% 18,9	% 22,6	% 12,6
	Buruntzaldea	% 25,8	% 31,7	% 18,4
Bidasoa Beherea	% 12,3	% 21,5	% 12,9	

Oharra: Khi-karratuaren (X<sup>2</sup>) probaren arabera, aldeak nabarmenak dira FAMILIA-MOTAREN, ERRENTAREN, UDALERRIAREN TAMAINAREN eta ESKUALDEAREN ARABERA.



<sup>137</sup> Seme-alabak dituen familia nuklearra bikote ezkondu batek eta bere seme-alabek osatzen dute (Eustat).

<sup>138</sup> Guraso bakarreko familia aita edo ama bakar batek eta bere seme-alabek osatzen dute (Eustat).

<sup>139</sup> Familia zabala edozein motatako familia-nukleo batek eta berekin bizi diren ahaideek osatzen dute (Eustat)

<sup>140</sup> Eskualde bakoitzaren osaera ezagutzeko, ikus eranskinak.




**BESTE ALDERDI BATZUK**

**4.2. Sexu-hezkuntzarekin lotutako zenbait ohar**


Inkestak 12 urtetik gorako nerabeen sexu-hezkuntzari buruzko datu batzuk ematen ditu. Zehazki, sexualitatearekin lotutako gaietarako buruz informatzeko erabiltzen dituzten iturrietarako buruz galdetu zaie, baita informazio gehiago zer alderdiri buruz jaso nahi luketen ere.

Egindako kontsultaren arabera, ohikoena da HNek sexualitateari buruzko informazioa jasotzeko lagunengana jotzea (% 30,4); ondoren, gurasoak (% 16,9), Internet (% 12,6) eta irakasleak (% 5,6) daude. SEXUAREN arabera, mutilek askoz gehiago jotzen dute lagunengana (% 32,3, nesken % 27,6ren aldean) eta Internetera (% 16,2, nesken % 7,3ren aldean) gai horien berri izateko.

**12 eta 14 urte bitarteko nerabeen sexualitatearekin lotutako gaietarako buruzko informazio-iturriak. % Gipuzkoa. 2022**



**12 eta 14 urte bitarteko nerabeen sexualitatearekin lotutako gaietarako buruzko informazio-iturriak sexuaren arabera. % Beti edo ia beti. Gipuzkoa. 2022**




Oharra: Khi-karratuaren (X<sup>2</sup>) probaren arabera, aldeak esanguratsuak dira SEXUAREN arabera.



**BESTE ALDERDI BATZUK**


Informazio gehiago zer gai edo edukitan behar duten galdetuta, ohikoena da harreman sexualei, afektiboei, erromantikoei eta abarri buruzko informazioa bilatzea (% 30,4) eta, ondoren, beste gai batzuei buruz, hala nola, sexu- eta genero-aniztasuna (% 17,8), hilerkoa (% 10,1) edo matxismoa, sexu-indarkeria eta genero-desberdintasuna (% 9,1).

**12 eta 14 urte bitarteko nerabeen sexualitatearen zein alderdiri buruzko informazio gehiago jasotzea gustatuko litzaiekeen. %. Gipuzkoa. 2022**



**Sexuaren** arabera, mutilek askoz ere gehiago nahiko lukete harreman sexualei, afektiboei, erromantikoei eta abarri buruzko informazioa jaso (% 38,5, nesken % 20,7ren aldean). Aldiz, neskei gehiago interesatzen zaizkie sexu-aniztasuna (% 21,1 eta mutilei % 12) eta genero-aniztasuna edo hilerkoa (% 17,4 eta % 1,7, hurrenez hurren).

**12 eta 14 urte bitarteko nerabeen sexualitatearen zein alderdiri buruzko informazio gehiago jasotzea gustatuko litzaiekeen sexuaren arabera. %. Gipuzkoa. 2022**




Oharra: Khi-karratuaren (X<sup>2</sup>) probaren arabera, aldeak esanguratsuak dira SEXUAREN arabera.



### 4.3 Berdintasunarekin lotutako zenbait ohar

Inkestak adierazten du, halaber, nesken eta mutilen arteko desberdintasuna eta matxismoa zer neurritan den kezka 12-14 urteko nerabeen artean. **Nesken** % 54,7 nahiko edo oso kezkatuta daude desberdintasunengatik eta matxismoarengatik, eta **mutilen** kasuan % 37,7. Bestalde, desberdintasunak eta matxismoak kezka txikia eragiten die nesken % 21,6ri eta mutilen % 36,8ri.

#### Nesken eta mutilen arteko desberdintasunarekiko eta 12 eta 14 urte bitarteko nerabeen matxismoarekiko kezka maila. %. Gipuzkoa. 2022




Oharra: Khi-karratuaren ( $\chi^2$ ) probaren arabera, aldeak esanguratsuak dira SEXUAREN arabera.

**BESTE ALDERDI BATZUK**

**4.4. Lagunekin euskara erabiltzeari buruzko zenbait ohar**

Galdetegian aztertu den beste alderdi bat da Gipuzkoako HNen euskararen erabilera lagunen arteko harremanetan. Inkestaren arabera, galdetutakoen ia erdiek (% 48) nahiago dute euskara erabili lagunekin komunikatzeko. Gainera, % 28,3k ez du bi hizkuntzetako bat ere nahiago, eta % 23,7k harremanetan gaztelania erabiltzeko joera handiagoa du.


**Euskararen edo gaztelaniaren erabilera-nagusitasuna sexuaren eta adinaren arabera. Gipuzkoa. 2022**



Nahiz eta, **sexua** edozein dela ere, harremanak euskaraz izatea nahiago duten, neskek hizkuntza horren aldeko joera handiagoa dute (% 51,5; mutilek, berriz, % 45,4), eta gaztelania nahiago duten mutilak gehiago dira (% 20,8; mutilek, aldiz, % 26,1).



**Euskararen edo gaztelaniaren erabilera-nagusitasuna sexuaren arabera. Gipuzkoa. 2022**




Oharra: Khi-karratuaren (X<sup>2</sup>) probaren arabera, aldeak esanguratsuak dira SEXUAREN arabera.



## BESTE ALDERDI BATZUK

Emaitzek agerian uzten dute adinaren eta euskararen erabilerearen arteko lotura. Hala, **adinean** aurrera egin ahala, behera egiten du neska-mutiek euskaraz hitz egiteko duten joerak (8 eta 9 urte bitartekoen % 61,8tik 12 eta 14 urte bitartekoen % 35,5era), eta, aldi berean, handitu egiten da gaztelaniaz hitz egitekoa (% 14,8tik % 32,9ra).

### Euskararen edo gaztelaniaren erabilera-nagusitasuna adinaren arabera. Gipuzkoa. 2022



Oharra: Khi-karratuaren ( $\chi^2$ ) probaren arabera, aldeak esanguratsuak dira ADINAREN arabera.

**Familia-motaren** arabera, familia nuklearretan (% 44) eta familia zabaletan (% 40) bizi direnek nahiago dute euskaraz hitz egin. Aldiz, guraso bakarreko familietan (% 43,8) edo beste familia-mota batzuetan (berreratuta...) bizi diren (% 42,3) gehienek gaztelaniaren alde egiten dute lagun arteko harremanetan.

**Udalerriaren tamainari** erreparatuta, ikusten da euskaraz hitz egiteko joerak behera egiten duela tamaina handitu ahala: udalerri txikietan % 70ek nahiago du euskaraz hitz egin, eta % 41,2k udalerri handietan.

**Eskualdeka**, Urola Kostan (% 75,4) eta Tolosaldean (% 68,4) bizi direnek nahiago dute lagunekin euskaraz hitz egin, eta Oarsoaldean (% 67,9) eta Bidasoa Beherean (% 52,3) bizi direnek gaztelania nahiago dute.



**BESTE ALDERDI BATZUK**



**Euskararen edo gaztelaniaren erabilera-nagusitasuna, gurutzatze-aldagaien arabera. %. Gipuzkoa. 2022**

		Euskaraz hitz egitea	Gaztelaniaz hitz egitea	Berdin zait
<b>EUSKARAREN EDO GAZTELANIAREN ERABILERA-NAGUSITASUNA</b>		<b>% 30,4</b>	<b>% 44,0</b>	<b>% 21,8</b>
<b>FAMILIA-MOTA</b>	Familia nuklearra <sup>141</sup>	% 44,8	% 24,3	% 30,9
	Curaso bakarreko familia <sup>142</sup>	% 26,5	% 43,8	% 29,7
	Familia zabala <sup>143</sup>	% 40,0	% 31,6	% 28,3
	Beste mota bateko familia	% 23,8	% 42,3	% 33,9
<b>FAMILIA-ERRENTA ERABILGARRIA</b>	Baxua (< 37.500€)	% 43,6	% 29,1	% 27,3
	Ertaina (37.501€ -41.500€)	% 58,0	% 16,7	% 25,3
	Altua (> 41.501€)	% 43,6	% 24,6	% 31,8
<b>UDALERRIAREN TAMAINA</b>	Txikia (< 4.000)	% 70,0	% 9,5	% 20,5
	Ertaina (4.001 - 10.000)	% 55,3	% 18,5	% 26,1
	Handia (> 10.000)	% 41,2	% 28,1	% 30,7
<b>ESKUALDEA<sup>144</sup></b>	Urola Kosta	% 75,4	% 6,2	% 18,4
	Urola Erdia eta Garaia	% 63,1	% 16,3	% 20,5
	Tolosaldea	% 68,4	% 10,8	% 20,8
	Oarsoaldea	% 7,0	% 67,9	% 25,1
	Goierri	% 62,2	% 13,5	% 24,3
	Donostia	% 32,2	% 33,2	% 34,6
	Debagoiena	% 48,3	% 22,6	% 29,2
	Debarbarrena	% 52,2	% 18,2	% 29,7
	Buruntzaldea	% 42,7	% 23,4	% 33,9
	Bidasoa Beherea	% 11,5	% 52,3	% 36,2

Oharra: Khi-karratuaren (X<sup>2</sup>) probaren arabera, aldeak nabarmenak dira FAMILIA-MOTAREN, UDALERRIAREN TAMAINAREN eta ESKUALDEAREN ARABERA.

Lagun arteko harremanetan euskara aukeratzeko arrazoiak kontsultatu ondoren, HNen % 41,5ek adierazi du modu naturalean ateratzen zaiola, eta % 33,7k lagunekin hizkuntza horretan hitz egin nahi duelako dela. Gainera, % 14,6k lagunek euskara erabiltzen dutelako egiten dute, eta % 10,2k lagunek hizkuntza hori erabiltzeko eskatzen dietelako.

<sup>141</sup> Seme-alabak dituen familia nuklearra bikote ezkondu batek eta bere seme-alabek osatzen dute (Eustat).

<sup>142</sup> Curaso bakarreko familia aita edo ama bakar batek eta bere seme-alabek osatzen dute (Eustat).


<sup>143</sup> Familia zabala edozein motatako familia-nukleo batek eta berekin bizi diren ahaideek osatzen dute (Eustat)

<sup>144</sup> Eskualde bakoitzaren osaera ezagutzeko, ikus eranskinak.




**BESTE ALDERDI BATZUK**

**Lagunekiko harremanetan euskara erabiltzeko arrazoiak. Gipuzkoa. 2022**



**Sexuaren** araberako analisiak adierazten du neskek eta mutilek zergatik erabiltzen duten euskara lagun arteko harremanetan. Hala, neskek gehiago egiten dute euskararen alde, modu naturalean ateratzen zaielako (% 45,2, mutilen % 38,3ren aldean) eta nahi dutelako (% 35, mutilen % 32,6ren aldean); aldiz, mutilek gehiago erabiltzen dute euskara, lagunek erabiltzen dutelako (% 17,1, nesken % 11,7ren aldean) edo lagunek erabiltzeko eskatzen dietelako (% 12 eta % 8,2ren aldean).

**Lagunekiko harremanetan euskara erabiltzeko arrazoiak sexuaren arabera. Gipuzkoa. 2022**




Oharra: Khi-karratuaren (X<sup>2</sup>) probaren arabera, aldeak esanguratsuak dira SEXUAREN arabera.



## BESTE ALDERDI BATZUK

**Adinean** aurrera egin ahala, handitu egiten da lagunekin euskaraz modu naturalean ateratzen zaielako egiten duten HNen ehunekoa (8 eta 9 urte bitartekoen % 34,3tik 12 eta 14 urte bitartekoen % 47,8ra igarotzen da) eta, aldi berean, jaitsi egiten da nahi dutelako euskaraz hitz egiten dutenen ehunekoa (% 40,7tik % 28,2ra).

### Lagunekiko harremanetan euskara erabiltzeko arrazoiak adinaren arabera. Gipuzkoa. 2022



Oharra: Khi-karratuaren ( $\chi^2$ ) probaren arabera, aldeak esanguratsuak dira ADINAREN arabera




#### 4.5. Haur eta nerabeen eskubideak ezagutzeari buruzko zenbait ohar

Haur eta nerabeei HNEKn jasotako eskubideak ezagutzera ematea eta haien artean zabaltzea kolektiboa ahalduntzeko modu egokia da, beren eskubideak gauzatu ditzaten. Horri dagokionez, inkestaren arabera, HNen % 65,3k ez du ezagutzen HNEK, eta % 60k ez daki zein diren haurren eta nerabeen eskubideak.





#### Haurren eta nerabeen eskubideak ezagutzearekin lotutako alderdiak. %. Gipuzkoa. 2022



**Sexuaren** arabera, alde txikiak daude nesken eta mutilen artean; izan ere, badirudi azken horiek direla HNen eskubideak eta HNEK gehien ezagutzen dituztenak. Adinaren arabera, 8 eta 9 urte bitartekoek neurri txikiagoan ezagutzen dituzte beren eskubideak eta Konbentzioa.

**BESTE ALDERDI BATZUK**

**Haurren eta nerabeen eskubideak ezagutzearekin lotutako alderdiak, sexuaren eta adinaren arabera. Baiezkoen %. Gipuzkoa. 2022**



Oharra: Khi-karratuaren ( $\chi^2$ ) probaren arabera, aldeak esanguratsuak dira SEXUAREN eta ADINAREN arabera.




# Ondorioak



## 5. Ondorioak




- 5.1 | **Bizitzarekiko gogobetetze maila orokorrean**
- 5.2 | **Norberak hautemandako ongizatea**
- 5.3 | **Gogobetetze maila handiagoa eta txikiagoa sortzen duten esparruak**
- 5.4 | **Azterketan ebaluatutako beste alderdi batzuk**
- 5.5 | **Ekintzarako orientabide batzuk**



## 5.1 Bizitzarekiko gogobetetze maila orokorrean

- Gipuzkoako HNen gogobetetze maila beren bizitzarekin, oro har, oso altua da (9,1 puntu 10etik): haur eta nerabeen % 78,7 oso pozik daude<sup>145</sup>. Hala ere, % 5,1ek (2.500 HN inguru) oso gogobetetze txikia edo moderatua erakusten du<sup>146</sup>.
- Gogobetetze maila apalxeagoak dituzte neskek (% 75,4 oso pozik daude) eta 12 eta 14 urte bitartekoek (% 65,6 oso pozik daude). Nesken eta mutilen arteko aldeak, batez ere, 12 urtetik aurrera agertzen dira.
- Beren burua ez-binariotzat jotzen duten pertsonak batez besteko puntuazio nabarmen txikiagoa dute (7,4 puntu).
- Guraso bakarreko familietan bizi diren pertsonak ez daude hain pozik (batez beste 8,2 puntu).



## 5.2 Norberak hautemandako ongizatea

- Gipuzkoan hautemandako ongizatearen indize orokorra 10etik 9 puntukoa da: haur eta nerabeen % 69,9k puntuazio oso altuak eman ditu. Hala ere, % 8,4 (4.200 HN inguru) oso maila baxuan edo moderatuan kokatu da.
- Gipuzkoan erregistratutako tasa, 12 urte dituztenak bakarrik kontuan hartuta (8,8), Europako beste eskualde eta herrialde batzuetakoaren oso antzekoa da: Katalunia (8,8), Espainia (8,7) edo Alemania (8,2).
- Oro har, balio baxuagoak dituzte neskek (% 68k puntuazio oso altuak ditu) eta nerabeek (% 53,1ek puntuazio oso altuak ditu). Nesken eta mutilen arteko aldeak, batez ere, 12 urtetik aurrera agertzen dira.
- Beren burua ez-binariotzat jotzen duten pertsonak batez besteko puntuazio nabarmen txikiagoa dute (7,4 puntu).
- Guraso bakarreko familietan bizi direnek puntuazio txarragoak eman dituzte (8,1 puntu, batez beste).

<sup>145</sup> Oso pozik daudenen puntuazioa 9-10 puntukoa da.

<sup>146</sup> Maila baxua edo moderatua 0 eta 6 puntu arteko balioei dagokie.



### 5.3 Gogobetetze maila handiagoa eta txikiagoa sortzen duten esparruak

HNak **oso pozik daude** honako hauekin:

- Beren ongizate materiala: batez besteko puntuazioa 9,4koa da, haur eta nerabeen % 86,7 oso pozik daude dituzten gauzekin eta % 85,3 beren etxearekin.
- Familiako bizitza: batez besteko puntuazioa 9,4koa da, eta % 85,7 oso pozik daude beraiekin bizi diren pertsonekin.
- Lagunak: batez besteko puntuazioa 9,2koa da, eta % 81,5 oso pozik daude.
- Beren auzoa edo herria: batez besteko puntuazioa 9,2koa da, eta % 78,8 oso pozik daude.



**Ez daude horren pozik** honako hauekin:

- Aisialdia: batez besteko puntuazioa 8,6koa da, baina 8,3 puntura jaisten da libre duten denbora-kopurua baloratzen denean. Haur eta nerabeen % 56,5 baino ez daude oso pozik, eta % 13,8 gutxi edo nahiko pozik daude alderdi horrekin.
- Eskola-bizitza: batez besteko puntuazioa 8,6 puntukoa da, baina haur eta nerabeen % 11,5 pixka bat edo neurri batean pozik dago eskolan ikasitakoarekin, eta % 10,4 ikasle-bizitzarekin.
- Autonomia: batez besteko puntuazioa 8,6 puntukoa da; hala ere, haur eta nerabeen % 11,8k gogobetetze maila txikia edo neurri batekoa du helduek entzuten dieten moduarekin, eta % 10,8 sentitzen duen segurtasunarekin.
- Osasuna: batez besteko puntuazioa 8,7 puntukoa da, baina 8,3 puntura jaisten da norberaren gorputzarekiko gogobetetzea baloratzen denean. Haur eta nerabeen % 77,4 oso pozik daude, baina % 10,2 ez daude oso gustura alderdi horrekin.





### Familia-bizitza

- Beraiekin bizi diren pertsonetik batez besteko gogobetetze maila oso handia da (9,4 puntu 10etik): haur eta nerabeen % 85,7 oso pozik daude, eta gogobetetze oso txikia edo neurri batekoa dutenak, berriz, % 2,9 dira.
- Ez dago alderik nesken eta mutilen artean, baina bai ADINAREN arabera: 12 eta 14 urte bitartekoen % 79,5 oso pozik daude beraiekin bizi diren pertsonekin.
- Guraso bakarreko familietan bizi diren haur eta nerabeak ez daude hain pozik (batez beste 9,0 puntu dituzte, eta familia nuklearretan 9,5).
- Ondoen baloratutako alderdiak honako hauek dira: etxean hautemandako segurtasuna (% 96,1 oso seguru edo nahiko seguru sentitzen dira etxean), senideengandik jasotzen dituzten laguntzak (% 93,8k nahiko argi du arazoren bat izanez gero familiako norbaitek lagunduko diola) eta familian igarotzen duten denbora (% 92,9k adierazi du bere familian denek elkarrekin ondo pasatzen dutela).
- Hobekuntza-marjina handiena duten alderdiak parte-hartzearekin lotzen dira: haur eta nerabeen % 13,6k ez dute erabat argi ikusten gurasoek entzuten dietenik eta beraiek esaten dutena kontuan hartzen dutenik. Gainera, % 6,7k ez du uste gurasoek erabakiak beraiekin hartzen dituztenik, eta % 14,1ek zalantzak ditu.
- Nerabeak ez daude hain pozik alderdi guztietan.



### Ongizate materiala

- Dituzten gauzekiko (10etik 9,5 puntu) eta beren etxearekiko (10etik 9,4 puntu) gogobetetze maila oso handia da: haur eta nerabeen % 86,7 oso pozik daude dutenarekin eta % 85,3 bizi diren etxearekin.
- Aldiz, % 2,3 eta % 2,9 inguru, hurrenez hurren, oso gutxi edo nahiko pozik daude bi alderdi horiekin.
- Dimentsio horretan emaitza onak izan arren, nabarmentzekoa da % 20,5 (10.370 HN inguru) familiak duen diruaz arduratzen dela sarritan edo beti.



## ONDORIOAK

- Neskek eta mutilek antzera baloratzen dituzte, baina nerabeek batez bestekoaren azpitik: 12 eta 14 urte bitarteko haur eta nerabeen % 82,4 oso pozik dago dituen gauzeekin, eta % 79,6 bere etxearekin.
- Guraso bakarreko familietan bizi diren HNak ez daude hain pozik beren ongizate materialarekin, dituzten gauzei dagokienez (batez beste 9,1 puntu) nahiz beren etxeari dagokionez (batez beste 8,9 puntu).
- 10 urtetik gorako HNen % 72,9k bere gela du, hau da, % 27,1ek ez du halako espaziorik.
- Nolako presentzia dute IKTek HNak bizi diren etxeetan? Ia etxe guztietan Internet dago (% 97,6) eta horietako askok ordenagailu edo tablet bat dute (% 88,4). Kontsultatutako HNen % 60,2k sakelako telefonoa du, eta 12 urtetik aurrera % 94k.
- Zenbateraino daude etxe horiek ikasteko prestatuta? Kontsultatutako HNen % 4,9 inguruk ez du ikasteko idazmahairik, eta ia % 3,4k dio ez dauzkala bere ikastetxerako behar duen materialak edo gauzak (adibidez, ikasgelarako materiala, txangoetarako materiala, etab.).
- Zer ondasun dituzte aisialdiari eta kirolari dagokienez? Gipuzkoako HNen % 91,6k bere bizikleta du, baina ikusi da % 4,6k kirola egiteko edo bere zaletasunak gauzatzeko material egokirik ez duela. HNak dituzten Gipuzkoako familiak 3 aldiz joan dira, batez beste, oporretara azken urtean.



### Osasuna

- Haur eta nerabeen % 83,9 oso pozik dago bere osasunarekin (10etik 9,2 puntu) eta % 77,4 bere gorputzarekin (10etik 8,3 puntu).
- Nesken eta mutilen arteko alderik handiena norberaren gorputzarekin lotuta dago. Nesken artean, % 72,9 oso pozik dago, eta mutilen artean, berriz, % 82,4 dago oso pozik.
- Adinaren arabera aldeak nabarmenak dira. 12 eta 14 urte bitarteko HNen ehunekoak askoz ere txikiagoak dira, batez ere beren gorputzari dagokionez (adin-tarte horretan, oso pozik daudenen ehunekoa % 56,7ra jaisten da).



## ONDORIOAK

- Guraso bakarreko familietako haur eta nerabeek gogobetetze maila txikiagoa dute beren osasunarekiko (batez besteko 8,7 puntu) eta beren gorputzarekiko (batez besteko 7,6 puntu).
- Azken 2 asteetan, 8 eta 14 urte bitarteko HNen ia erdiek maiz sentitu dute estresa (% 52,2k, 26.407 HN inguru) eta % 17,3k tristura. Estresa gehiago agertzen da nesken egunerokoan (% 54) mutilenean baino (% 50,6) eta adin handiagoa dutenen artean baino (% 31,2).
- 8 eta 14 urte bitarteko HNen % 65,7 zoriontsu sentitu da. Ehunekoak zertxobait murrizten da nesken artean (% 63,7) eta asko murrizten da 12 eta 14 urte bitartekoen artean (% 50,4).



### Autonomia

- Haur eta nerabeen % 72,4 oso pozik dago duen askatasunarekin (8,8 puntu batez beste 10 puntutik); % 69,6 sentitzen duen segurtasunarekin (8,6 puntu batez beste 10 puntutik) eta % 62,1 helduek entzuten dioten moduarekin (8,4 puntu batez beste 10 puntutik).
- Nesken eta mutilen arteko alderik handiena hautemandako segurtasunean dago: nesken % 66,7 oso pozik dago, eta mutilen kasuan % 72,6.
- Adinaren arabera aldeak nabarmenak dira. 12 eta 14 urte bitarteko nerabeen gogobetetzearen ehunekoak askoz baxuagoak dira askatasunari dagokionez (% 60,1 oso pozik daude), sentitzen duten segurtasunari dagokionez (% 59 oso pozik daude) eta helduek entzuteko moduari dagokionez (% 46,1 oso pozik daude).
- Guraso bakarreko familietako kide direnek gogobetetze maila txikiagoa dute alderdi guztiekin, batez ere beren askatasunari dagokionez (batez beste 8,2 puntu).





## Eskola-bizitza

- HNen % 67 oso pozik dago ikaskideekin (10etik 8,8 puntu), % 65,4 ikasle-bizitzarekin (10etik 8,6 puntu) eta % 61,1 ikasten dituen gauzekin (10etik 8,4 puntu).
- Ehuneko horiek % 55,8ra, % 45era eta % 37,8ra jaisten dira, hurrenez hurren, 12 urtetik gorakoan artean.
- Aitzitik, garrantzitsua da kontuan hartzea % 11,5ek maila baxuan edo ertainean puntuatzen dituela ikaskuntzak, % 10,4k ikasle-bizitza eta % 6,2k ikaskideak.
- % 33,6 lagunekin oinez joaten da eskolara.
- Ondoen baloraturako alderdiak honako hauek dira: ikastetxean sentitzen duten segurtasuna (% 87,4 oso pozik dago), irakasleen laguntza arazoren bat dutenean (% 84,7 oso pozik dago) eta gainerako ikaskideen laguntza (% 83,9 oso pozik dago).
- Balorazio txarrena jaso dutenen artean parte-hartzearekin lotutakoak nabarmentzen dira: % 23,5ek uste du irakasleek ez diotela behar adina entzuten, eta % 26,8k uste du erabakiak hobeto har daitezkeela.



## Lagunak

- Lagunekiko gogobetetze maila oso handia da (10etik 9,2 puntu): galdetutako HNen % 81,5 oso pozik dago, eta % 3,1ek baino ez du gogobetetze txikia edo ertaina.
- Haur eta nerabeen % 74,4k eskolatik kanpo ikusten ditu lagunak egun gehienetan, % 21,8k asteen behin edo bitan eta % 3,8k inoiz ez (1.922 HN inguru).
- Ohikoagoa da udalerritik txikiengan bizi direnek elkar ikustea (% 80,7k eskolatik kanpo ikusten ditu lagunak egun gehienetan, eta % 72,2 10.000 biztanletik gorako udalerritik batean bizi da).
- % 90 inguruk uste du nahikoa lagun dituela, arazo bat izanez gero lagun horiek lagunduko diotela, ondo tratatzen dutela eta haiekin egiten dituen jarduerak gustatzen zaizkiola eta asko dibertitzen dela.
- Mutilek (% 77) neskek baino gehiago (% 68,4) uste dute lagun berriak egitea erraza.

## ONDORIOAK

- Haur eta nerabeen % 57,3k dio bere lagunik onenek bereak ez bezalako jatorriak eta ohiturak dituztela.



### Aisialdia

- Aisialdian egiten dituzten gauzekiko gogobetetze maila handia da (10etik 9 puntu): HNen % 75,4 oso pozik dago, nahiz eta % 5,3 (2.600 HN baino gehiago) gutxi edo neurri batean bakarrik agertu pozik.
- Libre duten denborarekiko gogobetetze maila txikiagoa da (10etik 8,3 puntu): % 56,5 oso pozik dago eta % 13,8 gutxi edo neurri batean.
- Neskek mutilek baino gogobetetze txikiagoa dute bi alderdietan eta, bereziki, nerabeek aisialdiarekin (12 eta 14 urte bitarteko haur eta nerabeen dago % 42 oso pozik).
- % 37,4k uste du ez duela beti nahikoa denbora nahi dituen gauzak egiteko. % 73,3ri familiarekin denbora gehiago igarotzea gustatuko litzaioke, eta % 75,9ri lagunekin denbora gehiago igarotzea.
- % 78,3k uste du bere kabuz nahiko edo asko erabaki dezakeela aisialdian zer egin, eta horrek esan nahi du hamarretik bik uste duela bere maniobra-marjina txikia dela.
- Egunero % 36,4k telebista ikusten du, % 32k kirola egiten du, % 27,2k eskolako etxeko lanak egiten ditu eta ikasi egiten du, eta % 22k etxeko lanetan laguntzen du.
- Egunero telebista ikusten duten (% 41,7), bideojokoetan jokatzen duten (% 21,1) eta kirola egiten duten (% 43,2) mutilen ehunekoa neskena baino nabarmen handiagoa da (% 31; % 8,5 eta % 20,9, hurrenez hurren). Aldiz, ohikoagoa da neskek egunero ikastea (nesken % 29,9k ikasten du, eta mutilen % 24,8k).



## Auzoa/herria

- Beren herriarekiko edo auzoarekiko gogobetetze maila orokorra handia da (9,2 puntu 10etik): haur eta nerabeen % 78,8 oso pozik dago, eta % 4,6 baino ez dago ia batere edo neurri batean pozik.
- Haur eta nerabeen % 64,3 nahiko edo oso pozik daude beren inguruan beren adineko jendearentzat dauden jarduerekin; horrek esan nahi du % 12,6k hobetzeko tarte handia ikusten duela (6.300 HN baino gehiago).
- Zaharrenak eta udalerrri handietan bizi direnak ez daude hain pozik (8,7 eta 9,1, hurrenez hurren).
- Haur eta nerabeen % 36,4k baino ez du interesa parte hartzeko eta inguruko jarduerari eta beste gai batzuei buruzko erabakiak hartzeko.
- Ondo baloratutako alderdiak honako hauek dira: auzokideekiko harremanak (% 82,2k uste du bizilagunak adeitsuak direla HNekin), segurtasuna (% 82,0 seguru sentitzen da auzoan/herrian ibiltzen) eta helduen tratua (% 77,9k uste du herriko helduek entzuten dietela eta serio hartzen dituztela).
- Hauek dira balorazio txarrean jaso duten alderdiak: auzotarren laguntza arazo baten aurrean (% 63,9k uste du lagunduko lioketela), udalerriko bizitzan parte hartzea (% 60,7k uste du beraientzat interesgarriak diren auzoko edo herriko gauzei buruzko erabakiak har ditzaketela) eta mugitzeko askatasuna (% 53,4k uste du bere herriko kaleetan mugitzeko askatasuna duela).
- Neskek okerrago baloratzen dute segurtasuna (% 71,3 nahiko seguru edo oso seguru dago) eta parte hartzeko duten marjina (% 49,5 dago nahiko edo oso ados beren udalerriko erabakietan parte-hartzeko duen aukerarekin).



## 5.4 Azterketan ebaluatutako beste alderdi batzuk

- **Berdinen arteko indarkeria:** Indarkeriarik ohikoena hitzezkoa da (% 26,9k esan du azken hilabetean bitan edo gehiagotan irainak jaso dituela), eta ondoren, fisikoa (% 21,2) eta bazterkeria eta bakartzea (% 15,1). Badirudi hedatuago dagoela beren burua ez-binariotzat dutenen artean.
- **Sexu-hezkuntza:** 12 urtetik gorako neskek eta mutilek informazio sexuala bilatzen dutenean, gurasoengana (% 16,9) edo Internetera (% 12,6) baino lehenago jotzen dute lagunengana (% 30,4). Bikotekidearekin lotutako gaiak (% 30,4) eta sexu-aniztasuna (% 17,8) dira interes handiena sortzen dutenak.
- **Berdintasuna:** nesken % 54,7 nahiko edo oso kezkatuta daude generodesberdintasunagatik eta matxismoagatik, mutilen % 37,7ren aldean.
- **Euskara:** Bi HNtik ia batek lagunekin hitz egiteko nahiago du euskara erabili, gaztelania baino. Euskararen erabilera errotuago dago udalerritxikietan (HNen % 70ek nahiago du euskara erabili) handietan baino (% 41,2k nahiago du euskara erabili).
- **Eskubideak:** Gipuzkoako HNen % 60 inguruk ez daki zein diren Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioan jasotako eskubideak.

## 5.5 Ekintzarako orientabide batzuk

- **Guraso bakarreko familiek gainerako familiek baino erronka konplexuagoei egin behar diete aurre.** Guraso bakarreko familien parte diren HNek okerrago ebaluatzen dute beren ongizatea alderdi guztietan; beraz, zentzuzkoa dirudi familia horientzako laguntza-baliabideak indartzea eta, bazterketa-arriskuari dagokionez, gainerako etxeoketik alde murrizten ahalegintzea.  

- **Neskek eta mutilek ez dute beren ongizatea modu berean ebaluatzen.** Garrantzitsua da haur eta nerabeentzako programak eta ekimenak diseinatzean, gauzatzean eta ebaluatzean genero-ikuspegiarekin hartzea, gizarte- eta kultura-faktoreek (ohiturak, portaerak, balioak, jarrerak) emakumeengan eta gizonengan duten eragin desberdina kontuan hartzeko eta politika jakin batzuek haurrengan eta nerabeengan izan ditzaketen eragin desberdinak ikusarazteko.  

- **Pertsona ez-binarioak dira ongizatea okerren ebaluatzen dutenak.** Beharrezkoa da talde horren bizi-kalitatean sakonduko duten azterlan berriak egitea, haien nortasuna familian, lagunartean eta ikastetxean agerian jartzeak dituen erronkei arreta jarritz.  

- **Ongizatea jaitzi egiten da DBHko 1. maila egiten hasten direnean.** Funtsezkoa da nerabeen ongizate maila handituko duten berariazko neurriak bultzatzea. Interesgarria izan daiteke nerabeen garapen positiboa sustatzea ikastetxeekin lankidetzan, hauek eremu babesle gisa funtziona dezaten.  


- **Haurren eta nerabeen parte-hartzea erronka argia da.**

Funtsezkoa da programa eta proposamen berriak antolatzea, HNek maila guztietan (familian, ikastetxean, udalerrian, etab.) parte har dezaten sustatzeko; izan ere, hori egiteak positiboki lagundu ahal izango die beren autonomia pertsonala garatzen eta beren eskubideak erabat baliatzen.



- **Aisialdirik eta denbora librerik ez izateak eragin negatiboa izan dezake osasunean eta ongizate emozionalean.**

Komenigarria litzateke ekosistema berri bat sustatzea, haurren eta nerabeen aisialdirako, atsedeen aktiborako eta sozializatorako eskubidea bermatzeko. Horretarako, eginbeharren gainkargak eta eskolaz kanpoko jardueren bolumen altuak sortzen duten estresari erreparatu beharko litzaioke.



- **Adiskidetasun-harremanak gero eta ohikoagoak dira ohitura eta jatorri desberdinak dituzten haur eta nerabeen artean.**

Komeni da gizarteratzea eta bizikidetzak sustatzeko programak bultzatzen jarraitzea, gero eta HN gehiago ohitura eta jatorri desberdinak dituzten pertsonekin bizi diren une honetan, eta arreta aniztasunean jartzea balio sozial gisa.



Eranskinak





## **6. Eranskinak**



- 6.1 | **Ohar estadistikoak**
- 6.2 | **Gipuzkoako eskualdeak eta udalerrriak**
- 6.3 | **ZMZ galdetegia: Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. maila**
- 6.4 | **ZMZ galdetegia: Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. maila**
- 6.5 | **ZMZ galdetegia: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1., 2. eta 3. maila**
- 6.6 | **Erreferentzi bibliografikoak**



## 6.1 Ohar estatistikoak

Jarraian, jasotako datuen bilketarekin, tratamenduarekin eta azterketarekin zerikusia duten zenbait alderdi metodologiko eta estatistiko zehazten dira.

### Datu-bilketa

Inkesta-prozesua 8 eta 14 urte bitarteko ikasleak dituzten Gipuzkoako ikastetxe guztien bitartez egin da. Kuoten araberako laginketari esker, aztertutako unibertsoari buruzko informazioa lortu da — Gipuzkoako 8-14 urteko HNak —, eta ikastetxeek oso ondo erantzun dute. Ikastetxe bakoitzean osatutako galde-tegi guztiak jaso dira.

### Laginaren banaketa (datu gordinak)

		Maiztasuna	%
<b>GUZTIRA</b>		<b>10.178</b>	<b>100</b>
<b>SEXUA</b>	Neska	4.933	48,5
	Mutila	4.972	48,9
	Pertsona ez-binarioa	80	0,8
	Ed / Ee	193	1,9
<b>ADINA</b>	8-9 urte	1.851	18,2
	10-11 urte	2.568	25,2
	12-14 urte	5.759	56,6
<b>FAMILIA-MOTA</b>	Familia nuklearra	6.034	59,3
	Guraso bakarreko familia	412	4,0
	Familia zabala	989	9,7
	Beste mota bateko familia	675	6,6
	Ed / Ee	2.068	20,3
<b>FAMILIA-ERRENTA ERABILGARRIA</b>	Baxua (< 37.500€)	3.225	31,7
	Ertaina (37.501€ - 41.500€)	3.092	30,4
	Altua (> 41.501€)	3.779	37,1
	Ed / Ee	82	0,8
<b>UDALERRIAREN TAMAINA</b>	Txikia (< 4.000)	1.422	14,0

**ERANSKINAK**

	Ertaina (4.001 - 10.000)	1.865	18,3
	Handia (> 10.000)	6.809	66,9
	Ed / Ee	82	0,8
	Urola Kosta	361	3,5
	Urola Erdia eta Garaia	1.634	16,1
	Tolosaldea	916	9,0
	Oarsoaldea	356	3,5
	Goierri	554	5,4
<b>ESKUALDEA</b>	Donostia	2.109	20,7
	Debagoiena	1.167	11,5
	Debabarrena	877	8,6
	Buruntzaldea	1.723	16,9
	Bidasoa Beherea	399	3,9
	Ed / Ee	82	0,8

**Tratamendu estatistikoa**

1) Landa-lana amaitzean, laginak zituen alborapenak **haztapenen** bidez zuzendu dira, eta unibertsoaren jatorrizko oreka lehengoratu da, HNek laginean duten pisu erlatiboa unibertsoan duten benetako pisuarekiko koherentea izatea bermatzeko.

Zehazki, kasu honetan, laginak honako hauek zituen:

- a) 12 eta 14 urteko neska-mutilen nolabaiteko gehiegizko ordezkariak;
- b) 8 eta 9 urteko nesken eta mutilen nolabaiteko ordezkariak txikia.

Hurrengo tauletan **unibertsoaren banaketa** eta landa-lanaren ondoren lortutako laginaren banaketa erakusten dira, Gipuzkoako 8-14 urteko HNen sexuaren eta adinaren arabera. Era berean, laginaren alborapenak zuzentzeko erabilitako haztapenak erakusten dira.

## ERANSKINAK

### Unibertsoaren, laginaren eta haztapan-faktorearen banaketa, sexuaren eta adinaren arabera. % Gipuzkoa. 2022

	Unibertsoa		Lagina		Haztapan-faktorea	
	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak
<b>8-9 urte</b>	% 17,5	% 17,0	% 8,6	% 9,1	2,0	1,9
<b>10-11 urte</b>	% 13,2	% 12,3	% 12,3	% 11,9	1,1	1,0
<b>12-14 urte</b>	% 20,6	% 19,3	% 27,5	% 26,8	0,7	0,7

- 2) Oro har, datuek ondorio orokorrak ateratzeko aukera ematen dute, lagin osoarentzako +/-% 0,9ko konfiantza maila eta errore-marjinarekin. Horrek esan nahi du ikusi eta emaitzen atalean erakusten diren balioak unibertsoaren datu errealarekiko puntu bat alda daitezkeela goitik edo behetik. Sexuaren eta adinaren arabera azterketari dagokionez ere, datuek sendotasun nabarmena erakusten dute, errore-marjina txikiarekin, eta horrek aukera ematen du ondorio orokorrak ateratzeko, bai Gipuzkoako HNen sexuaren arabera, bai adinaren arabera.

### Unibertsoa, lagina, erantzunen eta errore-marjinaren %, sexuaren eta adinaren arabera. Absolutua eta ehunekoa. Gipuzkoa. 2022

	Unibertsoa <sup>147</sup>	Lagina <sup>148</sup>	Erantzunen %	Errore-marjinaren % <sup>149</sup>
<b>Gipuzkoako 8 eta 14 urte bitarteko HNak</b>	<b>50.589</b>	<b>10.178</b>	<b>% 20,1</b>	<b>% ± 0,9</b>
Neska	24.470	4.933	% 20,2	% ± 1,2
Mutila	26.119	4.972	% 19,0	% ± 1,2
Ez neska ez mutil <sup>150</sup>	-	80	-	-
8-9 urte	17.469	1.851	% 10,6	% ± 2,2
10-11 urte	12.933	2.568	% 19,9	% ± 1,7
12-14 urte	20.186	5.759	% 28,5	% ± 1,1

- 3) Zifra globaletatik harago, **laginaren kalitatea** frogatze aldera, egiaztatu da laginen banaketa unibertsoaren banaketarekiko koherentea zela, aldagai

<sup>147</sup> Gipuzkoako 8-14 urteko HNen unibertsoa Biztanleen Udal Estatistikatik abiatuta kalkulatu da (EUSTAT, 2022).

<sup>148</sup> Kasuen baturak alde handia izan dezake laginaren gutzizkoarekiko, ez baitu sexuari eta adinari buruzko informaziorik lagin osorako.

<sup>149</sup> Errore-marjina % 95eko konfiantza mailarekin kalkulatu da.

<sup>150</sup> Genero ez-binarioaren kategorian kasu gutxi daudenez, eta haien unibertsoa ezin denez identifikatu, ezinezkoa da errore-marjina kalkulatzeko eta zaila da bereizita aztertzea; beraz, generoaren arabera gurutzaketetatik kanpo geratu dira. Hala ere, gainerakoekin alderatuta alde nabarmenak izan diren kasuetan, datuak kontu handiz interpretatu behar direla jakitun diren analisietan txertatzea erabaki da, talde horrentzat lagin adierazgarririk ez dagoelako.

## ERANSKINAK

garrantzitsu jakin batzuei dagokienez. Laginak adierazgarria izan behar du, baina orekatua ere bai. Ondorengo taulek unibertsoaren eta laginaren banaketa erakusten dute.

**Unibertsoaren, laginaren eta haztapen-faktorearen banaketa, sexuaren eta adinaren arabera. Absolutuak eta ehunekoak. Gipuzkoa. 2022**

	Unibertsoa	Unibertsoaren %	Lagina	Laginaren %	Dif. %	
Eskualdea	<b>Bidasoa Beherea</b>	5.267	% 10,4	399	% 4,0	% -6,4
	<b>Buruntzaldea</b>	5.364	% 10,6	1.723	% 17,1	% 6,5
	<b>Debabarrena</b>	4.055	% 8,0	877	% 8,7	% 0,7
	<b>Debagoiena</b>	4.530	% 9,0	1.167	% 11,6	% 2,6
	<b>Donostia</b>	10.931	% 21,6	2.109	% 20,9	% -0,7
	<b>Goierri</b>	3.595	% 7,1	554	% 5,5	% -1,6
	<b>Oarsoaldea</b>	4.845	% 9,6	356	% 3,5	% -6,1
	<b>Tolosaldea</b>	3.882	% 7,7	916	% 9,1	% 1,4
	<b>Urola Erdia eta Garaia</b>	4.561	% 9,0	1.634	% 16,2	% 7,2
	<b>Urola Kosta</b>	3.559	% 7,0	361	% 3,6	% -3,4
Udalerriaren tamaina	<b>Txikia (&lt; 4.000)</b>	4.606	% 9,1	1.422	% 14,1	% 5,0
	<b>Ertaina (4.001 - 10.000)</b>	8.004	% 15,8	1.865	% 18,5	% 2,7
	<b>Handia (&gt; 10.000)</b>	37.979	% 75,1	6.809	% 67,4	% -7,7

Laginak lurralde historikoko zenbait eskualdetan eta udalerrri handienetan ordezkari txikia duen arren, laginaren egungo banaketari eustea pentsatu da, bi arrazoiengatik.

Lehenik eta behin, datuen azterketak ez du alde nabarmenik erakusten udalerrriaren eta eskualdeen tamainari dagokionez, aldagai zehatz batzuen kasuan izan ezik. Horrek adierazten du aldagai horiek ez dutela eragin nabarmenik azterketako guztizko emaitzetan.

Bigarrenik, bi aldagai horiek laginaren haztapenetan txertatzeak kategoria horietako batzuen laginketa-errorea nabarmen handitzea dakar, eta horrek laginaren multzoa kaltetzen du.

- 4) Bestalde, interes bereziko aldagai kuantitatibo batzuk aztertzeko, **kasu atipikoak edo outlierrak** azterketatik kanpo uztea erabaki da, 1,96tik (Z balio estandarizatua) gorako desbideratze estandarra baitute. Hau da, % 95eko konfiantza mailarekin, emaitzak espero den datu-eredutik kanpo

geratzen dira eta, beraz, baztertzea komeni da. Hauek dira hautatutako aldagaiak:

- C3 (ordenagailuen kopurua)
- C4 (komunen kopurua)
- C6 (autoen kopurua)
- C7 (opor-bidaien kopurua)

5) **Galdutako** edo erantzun gabeko **balioak** tratatzeko, erabaki da jasotako aldagai bakoitzerako galdutako kasuak identifikatzea eta aldagai horietako bakoitza baliozko kasuekin bakarrik aztertzea. Berez handia den lagin baten gainean lortutako galdetegi osoen kopuru handia kontuan hartuta, adierazle sintetikoak gehitu edo eraiki diren kasuetarako, erantzunetan baliozko balioak dituzten kasuak bakarrik kontabilizatu dira.

6) Hiru galdetegietako eskaletan jasotako erantzunak homogeneousak izatea bermatzeko, erabaki da bi eskaletan lortutako emaitzak parekatzea, **gogobetetze-eskalak** 1 -5 izatetik 0-10 eskalara aldatuz. Honela jokatu da:



7) **Aldagaien edo adierazle sintetikoen kalkulua** honela egin da:

- Hautzaroko ongizate subjektiboaren aldagaia **(CW-SWBS)** kalkulatzeko, galdetegiko galdera honetako itemak gehitzearen emaitza hartu da oinarri: "Zenbateraino zaude ados zure bizitzari buruzko esaldi hauetako bakoitzarekin oro har?":

- Nire bizitza ondo doa.
- Bizitza ona dut.
- Gertatzen zaizkidan gauzak bikainak dira.
- Nire bizitza gustuko dut.
- Nire bizitzaz gozatzen dut.
- Nire bizitzarekin zoriontsu naiz.

- **Haurren eta nerabeen bizi-kalitatearekin lotutako esparruak** biltzen dituzten indizeak kalkulatzeko, galdetegiko hainbat aldagai gehitu dira:

- FAMILIA-esparruarekiko gogobetetzea: zurekin bizi diren pertsonekin pozik.
- Esparru MATERIALAREKIKO gogobetetzea: zure etxearekin, zuretzat dituzun gauza guztiekin pozik.
- HEZKUNTZA-esparruarekiko gogobetetzea: gelakideekin, ikastetxean ikasitakoekin, ikasle-bizitzarekin pozik.
- LAGUNEN esparruarekiko gogobetetzea: lagunekin pozik.
- AUZO EDO HERRIAREKIKO gogobetetzea: zure auzo edo herriarekin, zure herrian edo auzoan zure adinekoentzat dauden jardurekin pozik.
- AISIALDIAREKIKO gogobetetzea: libre dudan denborarekin (kopurua), nire aisialdian egiten ditudan gauza eta jardurekin pozik.

### Datuen analisia

- 1) Txostenean zehar aldagaien gurutzaketetan ikusi diren datuak eta aldeak aztertzeke, beti hartu da kontuan **aldeak estatistikoki esanguratsuak izatea**, gutxienez 0,005eko mailan % 95eko konfiantza maila baterako. Beraz, estatistikoki esanguratsuak ez diren aldeak ez dira aipatu..
- 2) Aldagaien arteko erlazio esanguratsuz edo ez esanguratsuz gain, beste **estatistika-teknika** batzuk ere erabili dira ongizate globalean gehien laguntzen duten esparruak identifikatzeko — Erregresio Lineal Anizkoitza —, HNen ongizate globalean batez bestekoen arteko aldeak behatzeko — Bariantzaren analisia (ANOVA) —:

- Haurren ongizate subjektiboan (CW-SWBS) ekarpen nabarmenena egiten duten eremuak **Erregresio Lineal Anizkoitzeko** analisi baten bidez aztertzeke:

**ERANSKINAK**

- CW-SWBS aldagai mendekotzat hartuta, eta haurren eta nerabeen bizi-kalitatearekin lotutako aldagaiak independentetzat hartuta egin da azterketa.
- Erregresio-ereduaren zenbatespena urratsez urratseko metodoaren bidez egiten da, hau da, bizitzarekiko gogobetetze globalaren bariantza gehiena azaltzen duten aldagaiak identifikatzen dira, eta gainerakoak gehitu egiten dira aldagai esanguratsu gehigarriak ez dagoen arte (esanahi estatistikoa 0,05 mailakoa da).
- Zuhurtasunaren irizpidea erabiliz, fenomeno iragartzeko gaitasun handiena duen eta ahalik eta konplexutasun txikiena duen eredu aukeratzen da, hau da, ahalik eta aldagai gutxien dituen
- Eredua definitzeko, beta koefizientea erabiltzen da. Adierazle estatistiko horrek aldagai aurreikusle bakoitzaren berariazko ekarpen bakarraren maila erakusten du.
- $R^2$  estatistiko doituak eredu datuetara moldatzearen egokitasuna neurtzeko balio du, hau da, ereduak azaldutako bariantza batez bestekoak azaldutakoa baino handiagoa delako hipotesia kontrastatzeko.

**Resumen del modelo de regresión, R,  $R^2$  y  $R^2$  ajustado. Gipuzkoa. 2022**

Eredua	R	R karratua	R karratu doituak	Estimazioaren errore estandarra
4	0,642 <sup>c</sup>	0,412	0,412	1,068

Iturria: Geuk egina ZMZ? Haur eta nerabeen ahotsa inkestan oinarrituta. 2022



**Erregresio-ereduaren koefizienteak, CW-SWBS mendeko aldagai gisa hartuta. Gipuzkoa. 2022**

Koefizienteak						
Eredua	Estandarizatu gabeko koefizienteak		Koefiziente estandarizatuak	t	Sig.	
	B	Desb. errorea	Beta			
3	(Konstantea)	0,183	0,111		1,647	0,000
	Zurekin bizi diren pertsoekin	0,387	0,011	0,308	34,474	0,000
	Zure ikasle-bizitzarekin	0,195	0,007	0,250	27,966	0,000
	Aisialdian egiten dituzun gauzekin, jarduerekin...	0,187	0,009	0,189	21,536	0,000
	Zure lagunekin	0,205	0,010	0,179	20,442	0,000

Iturria: Geuk egina ZMZ? Haur eta nerabeen ahotsa inkestan oinarrituta. 2022.

- HNa ongizate subjektiboko (CW-SWBS) batez bestekoen aldeak **bariantzaren analisi baten bidez (faktore baten ANOVA)** ikusteko:
  - Bi aldagaiko azterketa egin da, CW-SWBSa mendeko aldagai gisa eta aldagai soziodemografikoak (sexua, adina, udalerraren tamaina, familia-mota) aldagai independente edo faktore gisa hartuta.
  - Aldagai independente guztiak aztertzea diskriminatzailea izan da eta HNa talde desberdinetan sailkatzea ahalbidetzen dute, haien ongizatearen indize subjektiboan (CW-SWBS) lortutako puntuazioaren arabera, % 95eko konfiantza-mailarekin.
  - Batez bestekoen eta puntuazio handiagoa edo txikiagoa duten taldeen artean aldeak daudela identifikatu ondoren, post hoc probek aukera ematen dute desberdintasun horiek non dauden zehazteko. Post hoc mailako probak elkarrengandik bereizten ez diren batez bestekoen azpimultzo homogeenak identifikatzen ditu.
